

# Berrigara



## Oliver!

Orfeoiaren urteurrenerako komedia musikala




SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Ibargarai 11-13 BERGARA  
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58







Zuretzat,  
bidalketa sistema  
fidagarri bat edukitzea  
ez da aukerarik garrantzitsuena.

## Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT  
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,  
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ  
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN  
MERKATURATZEA NAHI DUZU.  
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK  
BETE BEHAR DITUZU,  
ALDI BEREAN HAUEK ERE  
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.  
BIDALKETA,  
ZEURE NAHIAREN ARABERA  
EGITEA ESKATZEN DUZU,  
BESTERIK EZ.

HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI  
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,  
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK  
GARAIZ BETE DITZAZUN.  
HORRELAKO XEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEAK  
ATEZ ATE BANATZEN,  
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA  
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,  
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



**GUIPUZCOANA**

*Paketeen Garraio eta Banaketa*



*Beti garaiz.*

AENOR



Enpresa  
Erregistratua

ER-0626/297



ISO 9002





# Biztanleriaren sufrimendua

Ane Miren Lizarralde / Kazetaria

**B**errogeita hamar egun dira dagoeneko Jugoslavian gerra hasi zenetik, NATOk Milosevic-en erregimenaren kontra erasoak ekin zituenetik. Eta, zer lortu da berrogeita hamar egun hauetan? Ezer gutxi bakera eraman behar duen bidean, eta miseria asko. Aste hauetan komunikabideen albisterik garrantzitsuenetako bat Balkanetan bizi den gatazka berri hau izan dugu. Askok hitz egin da gerrari buruz eta buruan ditugun irudiak heriotzarenak dira, heriotzarenak eta milaka ta milaka albano-kosovar errefuxiatuen joan eta etorriarenak.

Ez da batere erreza, ezinezkoa ez esateagatik, gerra baten arauak ulertzea, baina sarraski baten ondoren ematen dizkiguten esplikazioak entzunda, erabat harrিতuta gelditzen zara, eta hori ezin duzu alde batera utzi. 1, 10, 20, 40 edo 100 lagun hiltzen dituztenean bonbardeaketa batean, eta berdin zait akatsa medio izatea ala ez, ezin

da ezertxo ere ulertu, eta ez hori bakarrik, nire ustez, ezin da esplikaziorik onartu.

Esan bezala, 50 egun pasatu dira, gehienak erasoz beteak, eta gehien sufritzen ari dena, beti bezala, biztanleria da. Egoera hori ikusita, nahi duzun gauza bakarra zera da, errefuxiatu guzti hoiei eskaintzen zaien laguntza handiena eta azkarrena izan dadila. Dena den, jakin badakigu laguntza horren bidea ere oztopoz beteta dagoela.

Hain zaila adostasun batera iristea? Diplomaziaren mugimenduak kontutan izanda, badirudi baietz. Errusiatik Belgradora, Estatu Batuetatik Bruselara, ez dakit nondik nora. Eta azken finean, el-karrizketa guzti hauetatik ezer ez. Erasoa eten gabe, egunez egun hildako gehiago, eta errefuxiatuen bizi baldintzak gero eta larriagoak. Espero dut guzti honi ez ohitzea nahiz eta gerra askoz gehiago luzatu. **B**

*"1, 10, 20, 40 edo 100 lagun hiltzen dituztenean bonbardeaketa batean, berdin zait akatsa medio ala ez, ezin da ezertxo ere ulertu, eta ez hori bakarrik, ezin da esplikaziorik onartu"*

barruan



**Karmele Rementeria**

Atzegiko Bergarako delegatua

*"Minusbaliatuen eta euren familien bizitzakalitatea hobetzea da Atzegiren asmoa"*

8.



**Jon Unamuno**

Iberdrola taldeko txirrindularia

*"Lagunak bide ertzean aurkituko dituzula jakiteak indarra ematen dizu"*

25.



**Enrike Brunet**

Brunet dendakoa

*"200 milioi tokatuz gero, negozioa handitu eta 15 eguneko operak hartuko nituzke"*

33.



# orain dela...

## BERGARAN GERTATUA

**1935.** Maiatzaren 7an Jose Antonio Ugarte hil zen Zarautzen. 1868ko martxoaren 16an jaio zen Angiozarren eta 1883ko ekainaren 20an egin zen frantziskotar. Arantzazuko inprentaren sortzaileetako bat izan zen eta hainbat idazlan liburu argitaratu zituen: "Zeruko Mana Gozoa", "Bederatziurren batzuek", e.a.

## MUNDUAN GERTATUA

**1876.** Maiatzaren 7an bere arrazoiak defenditzeko, euskaldunek "La Paz" egunkaria argitaratu zuten Madrilen.  
**1949.** Maiatzaren 4an Italiako selekzio kide guztiak hil ziren hegazkin istripuan.

# zozketak

## BONO LOTO

### Eguakitza 30

4-26-30-41-45-46 (osag.10/itz.6)

### Astelehena 3

3-6-18-20-36-37 (osag.48/itz.1)

### Martitzena 4

4-25-29-30-42-47 (osag.6/itz.1)

### Eguaztena 5

25-26-32-42-44-49 (osag.12/itz.0)

## PRIMITIVA

### Zapatua 1

9-10-20-26-29-37 (osag.14/itz.6)

### Domeka 2 Saritzarra

3-6-17-27-40-42 (osag.14/itz.2)

## ONCE

**Eguakitza 30:** 96.159 (188 seriea)

**Astelehena 3:** 74.281

**Martitzena 4:** 77.080

**Eguaztena 5:** 13.614


## BESTE BATZUK

### Musika Eskolak *Oliver!*erako zozketatutako bina sarrera:

Jose Lopez, Rafael Ramirez, Martin Muruamendiaraz, Julio Arziniega, Fernando Lasa, Julio Mendiaratz, Pako Unanue eta Teodoro Loiola

## Eguraldia

*Igeldoko meteorologi behatokia*



Zapatu goizean, estalita agertuko zaigu zerua, baina egunak aurrera egin ahala ostareak zabalduko dira. Domekan, urdinguneak nagusituko dira eta tenperaturak gora egingo du. Eguraldi eguzkitua, beraz, domekarako.

## Eguzkia

*Domeka, maiatzak 9*



Sortu: 07:06



Go: 21:21

## Temperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

## Ilargiaren aldiak



Ilbete: apirilak 30



Ilbehera: maiatzak 8



Ilberri: maiatzak 15



Ilgora: maiatzak 22

	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 29</b>	20	4	-
<b>Eguakitza 30</b>	23	6	-
<b>Zapatua 1</b>	24	6	0,1
<b>Domeka 2</b>	18	10	2,7
<b>Astelehena 3</b>	14	12	8,9
<b>Martitzena 4</b>	20	12	-
<b>Eguaztena 5</b>	24	10	-

# bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

## Artobero

Pertsona lasai eta mokolo xamarra.

- Semeik zarrena artobero majua da.



JOSU OXINA

## Farmaziak

### Eguakitza 7:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Zapatua 8:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Domeka 9:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Astelehena 10:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

### Martitzena 11:

PUV. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Eguaztena 12:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Eguena 13:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

## Ogia

**Domeka 9:** Mizpildi.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdik	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Udaltexea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85



**Julen Santamaria**  
Maiatzaren 11n  
11 urte.  
Urte askotarako!  
Ander eta Mireia.



**Julen Otaegi**  
Maiatzaren 8an  
7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Aner Ezenarro**  
Maiatzaren 7an  
26 urte.  
Urte askotarako!  
Inferreko peña.



**Andoni Etxezarreta**  
Maiatzaren 10ean  
3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Nerea.



**Jon Aranzabal**  
Maiatzaren 9an  
5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Maite.



**Jabi Fernandez**  
Maiatzaren 9an  
14 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



URTEURRENA

Elisabete  
Arana Txintxurreta

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzak 9, goizeko 11:30etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Maxima  
Anduaga Letamendi

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzak 9, goizeko 11:30etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Jose Mari  
Etxeberria Etxarri

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzak 9, goizeko 11:30etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

zorion agurrak

■ jaiotakoak

**BERGARA**  
Cheyenne Valor Guerrero  
Apirilak 25  
**ANTZUOLA**  
Unai Larrea Castro  
Maiatzak 2

■ hildakoak

**BERGARA**  
Jose Joakin Gabilondo Mekolalde  
Apirilak 24, 79 urte  
Fermin Salabarría Sanz  
Apirilak 29, 69 urte




**Ander Uriarte**  
10ean 5 urte. Urte askotarako eta muxu handi bat! Amaia eta gurasoak.



**Cesar Palacios**  
Maiatzaren 8an 31 urte. Urte askotarako! Aran eta Lorea.



**Gotzon Gimenez**  
Maiatzaren 11n 5 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Miel Mujika**  
Maiatzaren 8an 32 urte. Urte askotarako! Botixeli koadrilakoak.



**Nekane Berasategi**  
7an urtebetetzea. Urte askotarako! Antzuolako lagunak.



**Erik Gorostiaga**  
Maiatzaren 7an 8 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Ane Barragan**  
Maiatzaren 10ean 5 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta gurasoak.



**Aitor Lazkano**  
7an 6 urte. Urte askotarako eta muxu handi bat! Ainhoa, aita eta ama.



**Andoni Mujika**  
Maiatzaren 7an 6 urte. Urte askotarako! Axier eta gurasoak.



**Mari Karmen Eguren**  
8an urtebetetzea. Urte askotarako! Etxekoak.



**Ane Agirre**  
Maiatzaren 8an 5 urte. Urte askotarako! Familia.



**Cecilia Dulanto**  
Maiatzaren 10ean 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Nekane Eskibel**  
13an 36 urte. Urte askotarako eta pastel gozo bat prestatu! Etxekoak.

Datorren asteko  
BERRIGARAN,  
**MAIATZAREN**  
14a eta 20a  
bitartekoan  
zorion agurrak  
bakarrik  
argitaratuko dira.

ESKELA

Sor Eugenia  
Txintxurreta Kortabarria

Idala-Torre baserrikoa

Bilbon hil zen 1999ko apirilaren 26an, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizuna domekan, maiatzak 9, goizeko 11:30etan, Antzuolako parrokian.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Apolonia  
Iturbe Maiztegi

Gasteizen hil zen istripuz 1999ko apirilaren 27an, 81 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoiei eskerrik asko sendikoen izenean.*



## ANTZERKIA

► **Vaiven producciones** taldearen **"Crímenes del corazón"** bihar, zapatua, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

## MUSIKA

► Jam aretoa. Gaur, eguakitzatza, **Steve Wynn** 22:00etan; bihar, zapatua, **G.B.H. eta Eskizofrenia rock** taldeak ordu berean eta domekan, 20:00etan, **Gamma Ray, Steel prophet eta Roland grapow**.

► **Mikel Laboaren** kontzertua bihar, zapatua, 22:30etan Eibarko Astelena pilotalekuan.

► **Bilboko Elkartek** Korallak Brahms-en Requiem-a eskainiko du bihar, zapatua, 20:00etan Arrasateko Amaia antzokian.

## ERAKUSKETA

► **Luis Laskurainen** margoak Eibarko Arrate Elkartean (Zuloagatarren, 3) domekara arte.

► **Simon Arrieta** zeramika taldearen erakusketa maiatzaren 16ra arte Kultur Etxean.

## LEHIAKETAK

► **Bergara Hiria argazki lehiaketa**. Lanak maiatzaren 11ra arte jasoko dira Kultur Etxean. 943 76 30 90 (Benito).

## JAIAK

### Irukurutzeta eguna

**Noiz:** domekan, maiatzak 9

Azken urteotan berreskuratutako ohi-turari jarraituz, Irukurutzeta eguna ospatuko da domekan. Kapirixoko elkartek 1996an ekin zion Irukurutzetako erromeria antolatzeari. Aurreko edizioetan bezala, maiatzaren 3ko Santikurutz egunaren hurrengo domekan egingo da erromeria. Orain 80 bat urte maiatzaren 1ean izaten zen Irukurutzetako erromeria eta azkenaldian berrindartuta agertu zaigu. Kapirixorekin batera, Soroluzeko Atsedean Txaboleta elkartea eta Osintxuko Txurumilo kultur taldea izan dira berriz ere antolatzaile lanetan. Orain arteko edizioetan jende ugari bildu izan da Irukurutzetan eta eguraldiak laguntzen badihurtu ere arrakastatsua gertatzea espero dute antolatzaileek. Aurrekoetan Azkoiti, Elgoibar, Soroluze edo Bergarako jendea bildu izan da bertan. Iaz bezala domekan eguraldi txarra eginez gero, ospakizun-

nak Atsedean Txaboleta elkartean egingo lirateke.

Programari dagokionez, ez da aparteko nobedaderik aurten. Goizeko 11etan Bitoriano Gandiaga frailea eta Kapirixoko kideak meza emango du Irukurutzetatik Karakate aldera dagoen Pagobedeinkatuan eta meza ostean Kapirixoko kideek inguruko eremu megalitiarrari buruzko azalpenak emando dizkiete bertaratuei. Egurdiko 12etan salda, txorizoa eta ardoa banatuko dira eta 13:30etan Irukurutzetara igoera egingo da. Ordubetan, berriz, bazkaria egingo da (norberak etxetik eramatea eskatzen dute antolatzaileek) eta bazkalostean Jo ta su osintxuarrek alaitutako erromeria izango da. Bukatzeko, iluntze aldera jaisierari hasiera emango zaio.



lazio edizioan Atsedean Txaboleta elkartean elkartu zen jendea.

► **Bideo amateurraren erakusketa** ekainean Gasteizen. Filmeak gehienez 20 minutukoak eta bertan agertzen diren antzezlariek 21 urtetik beherakoak izan behar dira. Lanak (hiru kopia VHS sisteman) aurkezteko epea maiatzaren 15ean bukatzen da. 945 28 61 42.

► **Jose Maria Arizmendi-rrieta Lehiaketa**, irakaskuntza ertainetako ikasleei zuzenduta. Gaia: "Amets bat erai-kiz". Narrazio-informazio testuak zein saiakerak (euskaraz edo gaztelaniaz) aurkezteko epea maiatzaren 17an bukatuko da. 943 79 31 32.

## DEIAK

► **Herri-urrats** domekan Senperen. Autobusak 8:30etan aterako dira Beheko Estaziotik. Jardun: 943 76 08 19.

► **Odol ateraldia** eguaztene-

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

## Agirrebeña

JATEETXEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

## FRONTOI



## TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09



an, maiatzak 12, 18:30etan  
Seminarioko lokalean.

► **San Xosepe. Galizia** bisitatzeko bost eguneko bidai, ekainaren 15ean hasita (33.500 pezeta). Argibideak 943 76 21 40 zenbakian.

► **Pol-Polek eta Gorla Alpinok** Orbaizeta-Urkulu-Sorogain egun osoko mendi irteera iragarri dute maiatzaren 16rako. Izen-ematea Pol-Polen (943 76 48 51). Bestalde, maiatzaren 23an Elgetan ospatuko den **Euskal Federazioaren 75. urteurrena** dela eta, martitzenean, hilak 11, 20:00etan Pol-Polen egingo den batzarrean parte hartzeko herriko mendizale guztiei dei egiten zaie.

► **Fatimara peregrinazioa**, maiatzaren 18tik 22ra, frantziskotarrek antolatuta. Prezioa: 33.000 pezeta. Argibideak 943 78 09 51 zenbakian. Interesatutako bergararrek Barrenkaleko Zatoia dendan eman dezakete izena.

► **EAJ-EA**ren hautagaien zerrenda aurkezpena martitzenean, hilak 11, 20:00etan, Miguel Altuna institutu zaharreko areto nagusian. Hizlariak: Joseba Egibar, Jon Goikoetxea, Victoriano Gallastegi eta Kontxi Irizar.

► **Aranzadi Ikastolak** dei egiten die ikasleen gurasoei eguaztenean, hilak 12, 19:30etan San Martineko egoitzan egingo den ohiko batzar nagusian parte hartzeko.

► **Musika Eskola.** Datorren ikasturterako matrikula epea ekainera bitartean izango da zabalik. 943 76 57 80.

► **Gipuzkoako eskolarteko XIX. Bertsolari Txapelketa.** Hirugarren kanporaketa Legazpiko Haztegi Ikastolan, maiatzaren 14an, 15:00etan.

► **Euskal jaia Eibarren:** domekan, hilak 9, euskal jai eguna 11:00etatik aurrera. Eguenean, hilak 13, **Alfonso Martinezek** euskal zibilizazioari buruzko hitzaldia emango du 19:30etan Eibarko Kulturean.

## KINTADAK

► **1942an jaiotako enafaria** maiatzaren 29an Azpeitxi jate-txean, 21:00etan. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Mizpildi okindegian, Edel tapizdendan, Lonbide oinetako dendan edo Azpeitxi jatetxean, maiatzaren 26a baino lehen.

► **1958an jaiotako enafaria** ekainaren 12an, 21:30etan Antxoni jatetxean. Izen-ematea Antxonin edo Intxortan.

## JAIK

► **San Migel Monte jaiak** Goimendin bihar, zapatua, hilak 8, 19:00etan meza San Migel ermitan, ondoren luntxa eta 21:00etan Kanpazar jatetxean afaria. Afalostean erromeria izango da.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades Mensaje en una botella**  
Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.  
**Hi-lo country**  
Eguena, zine-kluba: 20:00.  
**ARRASATE. Alai zinema Payback**  
Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
**Mi gran amigo Joe**  
Zapatua: 17:00.  
Domeka: 17:00.

**The faculty**  
Domeka: 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

**ARRASATE. Amaia No se lo digas a nadie**  
Eguena, zine-kluba: 21:30.

**EIBAR. Unzaga La vida es bella**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 19:30, 22:15.  
Domeka: 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena: 19:30, 22:15.  
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto Lock & Stock**  
Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

**ELORRIO. Arriola Dioses y monstruos**  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.  
**Tormenta de hielo**  
Eguena, zine-kluba: 20:15.

### MENSAJE EN UNA BOTELLA

**Zuzendaria:** Luis Mandoki.  
**Aktoreak:** Kevin Costner, Robin Wright, Paul Newman.  
Luis Mandoki zuzendariak (*Cuando un hombre ama a una mujer*) Nicholas Sparks idazlearen nobela arrakastatsuan oinarritutako filmea errodatu du. Bere senarrarengandik banandu ondoren, *Theresak* norbaitek bidalitako botela aurkituko du hondartzan eta barruko mezuak erabat hunkituko du. Mezuaren egilea nor den jakin nahirik, bakarrik sentitzen den gizon batengana helduko da...



### HI-LO COUNTRY

**Zuzendaria:** Stephen Frears.  
**Aktoreak:** Woody Harrelson, Patricia Arquette, Penelope Cruz.  
Bigarren gerrate mundialaren osteko Estatu Batuetako men-debaldean kokatzen da Stephen Frears zuzendariaren azken filmea. *Pete* (Billy Crudup) eta *Big Boy* (Woody Harrelson) berriz elkartu eta ganadua zaintzeari ekingo diote. Baina emakume batek bi lagun arteko lehia piztuko du. Hori gutxi balitz, *Jim Edek* Hi-Loko lur gehienak erostea lortu du...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

## Gallastegi

### Jostundegia

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

## ETXE BERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

A  
R  
R  
A  
N  
O



### Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



**Gipuzkoako minusbaliatu psikikoen senitarteko eta lagunek osatutako Atzegi elkarteak gizarteari zuzendutako sentsibilizazio kanpaina burutu berri du. "Ez dakizu zer sentitzen dudun. Lastima! Sentitzen dut" lemapean, minusbaliatueganako kontzientziazio soziala piztea izan da kanpainaren helburu nagusia.**

**G.** Zein izan da gizarteari zabaldu nahi izan zaion mezua?

**E.** Kanpainaren zabal-kundearen bitartez gizarteak minusbaliatuen gaiaren gainean hausnarketa egin dezan lortu nahi izan da. Pertsona hauek dituzten gaitasun guztiak azpimarratu nahi izan dira, kontzientziazio soziala piztuz minusbaliatuak gizarteratzeko eta lan munduan integratzeko orduan gero eta oztopo gutxiago egoteko. Azken batean minusbaliatuen bizitza kalitatea eta beraien senitartekoena bultzatzea da Atzegi elkartearen helburu nagusia.


**G.** Zenbat lagun biltzen zarete Atzegein gaur egun?

**E.** Atzegein adimen urritasunarekin harreman zuzena duten 1.895 familien informazio eta orientazio eskakizunak erantzuten dira. Elkartearen bidez arazoak elkarren artean konpontzen saiatzen dira, laguntza ematen diote elkarri eta elkarrekin gauzatzen dituzte irtenbide egokia eman beharrezko programa eta proiektuak: lehen uneko giza sostengua, egoera larriak konpontzeko laguntza, etorkizunerako behar den sostengua bilatzea, familiatik kanpoko laguntza behar duten kasuen laguntza eta jarraipena..., etab. Adinaren arabera, etapa ezberdinetan la-

KARMELE REMENTERIA

Atzegiko Bergarako delegatua

*"Minusbaliatuen eta haien familien bizitza kalitatea hobetzea da Atzegiren asmoa"*



Karmelek urtebete darama Atzegiko herriko ordezkari gisa.

guntza berezien premia izaten da.

**G.** Zein da gizartearen jarrera minusbaliatuak integratzeko orduan?

**E.** Lehen baino erreztatun gehiago daude gaur egun. Orain dela urte batzuk gizartea ez zegoen horren kontzientziatuta eta bestalde minusbaliatuen familiek ere ez zeuzkaten

gaur egun dituzten baliabi-deak. Garai batean zentru psikiatrikoak ziren irtenbide bakarra eta gaur, berriz, egoera bestelakoa da, zorionez. Esate baterako, Gureak taldeko enpresetan 1.410 lagun ari dira lanean eta horrez gain, Txolartek jestionatzen dituen astebukaeretak jarduerak, Atzegiko kirol elkarteak, etxebizitza zerbitzua (minusbaliatuak elkarrekin bizi diren kasuetan), urritasun larriak dutenei zuzendutako barnetegiak edo babes fundazioa (inolakok familiarik ez dutenentzat) aipa daitezke.

Persona hauek gizarteratzeko egiten diren giza mentalizaziorako kanpainak bazkideen ekintzetako bat da. 3.000 bazkide kolaboratzaile (adimen urritasunarekin zuzeneko erlaziorik ez dutenak) ditu Atzegi eta benetan lan aipagarria egiten da. Atzegiko bazkide izan nahi dutenek 943 42 39 42 telefono zenbakira deitzea besterik ez dute.

**G.** Bailarako egoerari dagokionez, zer nolako lana egiten du Atzegik?

**E.** Bailaran 114 asoziatu daude, horietako 30 Bergaran eta beste 7 Antzuolan. Deba Garaiko delegatuak bi hilabete behin biltzen gara eta minusbaliatuen inguruko gaiak aztertzen ditugu. Jendeak jakin dezala Atzegi minusbaliatuen familiegandik gertu dagoela. Guztiei beharrezko orientazioa eta laguntza emango zaie eta beti ere errezagoa da elkarrekin aurrera egitea.

**G.** Zer destakatuko zenuke minusbaliatuen izaeraz?

**E.** Pertsona normalak direla, beraien akats eta bertuteekin eta gizarteratzeko laguntza eman behar diegula, euren kabuz moldatzenko. Beraiei atea irekitzeagure esku dago. **B**

**"Minusbaliatuak integratzeko orduan egoerak hobera egin du. Orain dela urte batzuk gizartea ez zegoen horren kontzientziatuta"**



# Animaliak edukitzea arautuko duen ordenantza onartu du Udalbatzak

## Arautegia datorren legealdian jarriko da indarrean

**Bergarako udalerrian animaliak edukitzea eta babestea arautuko duen udal ordenantzari hasierako onarpena eman zion Udalbatzak astelehenean. Bestalde, Ibargarai kalean egiten ari diren etxeen azpian, Seminarioko patioaren ondoan, lur-azpiko aparkalekuak eraikitzeke Udalaren eta etxeen sustaizailen arteko hirigintza hitzarmena eta udal demokraziaren XX. urteurrena dela eta, EUDE-**Len deklarazio instituzionala ere onartu ziren aho batez Plenoan.****



Bergaran animaliak edukitzea eta babestea arautuko duen udal ordenantzari hasierako onarpena eman zaio.

Animaliei buruzko ordenantza egiteko Animalien Babeserako Euskal Autonomia Erkidegoko Legea eta hainbat herritako ordenantzak hartu dira kontuan. Bestalde, herriko albaiataria, Bedelkarreko ordezkaria, animaliak hartzeko udalerrian dagoen zentru pribatu-ko arduraduna, Udaltzainburua eta Udaleko beste hainbat kide aritu dira ordenantza egiten.

Ordenantzan jasotzen denaren arabera, debekatuta dago balkoietan, garajeetan, pabilioietan, sotoetan, azoteetan, lorategietan edo bestelako lokaletan animaliak edukitzea edo ikuiluratztea, baldin eta animaliek auzokide zein oinezkoentzat usaina zein zikinkeria sortu eta ulua zein zaunka gogaikarriak egiten badituzte. Bestalde, debekatuta

egongo da animaliak honako leku hauetan sartzea: ikuskizun publiko, ikuskizun kultural eta kirol ikuskizunetako lokaletara, igerileku publikoetara, osasun zentroetara eta ikastetxeetara. Leku hauen guztien titularrek debeku hau adierazten duten seinaleak ipini behar izango dituzte ondo ikusteko moduan. Bestalde, ostalaritza arloko establezimendu publikoen jabeek, hau da, taberna, pentsio, jantoki, hotel, kafetegi edo antzekoen jabeek debekatu ahal izango dute, nahi izanez gero, bertan txakurrak sartzea. Sartuz gero, ordea, derrigorrez eskatu beharko dute txakurrek identifikazioa izatea, lotuta egotea eta bozala ipinita izatea, txakurraren ezaugarriek edo izaerak halakorik eskatzen ba-

dute. Debekatuta dago, eraberean, autobus publikoetan animaliak garraiatzea.

### TXAKURREN GOROTZA

Txakurren gorotzari dagokionez, debekatuta dago bide, espaloi eta plaza publikoetan, haurren parkeetan, lorategietan eta, oro har, leku apaingarrietan edo jendea ibiltzen den lekuetan lagatzea. Horregatik, txakurrekin doazenek gorotzak galtzadara, espaloiaren zintarri ondora eta estoldaren hustubideetatik ahalik eta hurbilen laga, edo bestela, Udalak horretarako egokitutako lekuetara eraman beharko dituzte. Zuhaitzen txorkoetan ere laga ahal izango dira.

Txakur batek bide publikoa zikintzen badu, herritarrek eskubidea izango du-

te txakur-jabeari edo eramaleari zikindutakoa garbi dezala eskatzeko.

### ISUNAK

Zigorrek ere arautzen dira ordenantzan eta hiru araurratze maila zehazten dira: arinak (5.000 eta 50.000 pezeta bitartekoak), larriak (50.001 eta 250.000 pezeta bitartekoak) eta oso larriak (250.001 eta 2.500.000 pezeta bitartekoak).

Ordenantza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero, hilabeteko epea izango da alegazioak egiteko. Ondoren, Udalbatzak behin betirako onartuko du eta indarrean jarriko da. Udalak ordenantzaren laburpena etxez etxe banatuko du, herritar guztiak araei buruzko informazioa izan dezaten. **B**





Duina ikasleen koordinadorak deituta, egun osoko greba eta protesta ekitaldiak egin zituzten eguakitzean ikasleek.

## Irakaskuntzan bizi dituzten baldintzengatik protestaka

### Ikastetxe ertainetako ikasleek greba egin zuten

**Duina** ikasleen koordinadorak deituta egun osoko greba egin zuten joan zen eguakitzean Bergarako hezkuntza ertaineko ikasleek. Irakaskuntzan bizi dituzten baldintza txarrak salatzeke egin zien grebarako deia unibertsitateko eta ertainetako ikasleei Duina koordinadorak. "Ikasleok gure eskubideak aldarrikatu behar ditugu" lelopean San Martin plazan egin zuten protesta ekitaldia goizeko 11:30etan.

Gaur egun hezkuntza sisteman ikasleen eskubideak ez direla osotara betetzen eta baldintzak "lotsagarriak" direla salatu zuten herriko ikasleek kalean banatutako idazki baten bitartez. Duina plataformaren esanetan, "hezkuntza sistema 'publiko' eta 'kalitatezko' honetan ikasteko ditugun trabak handiak dira". Eta horren adibide jarri zituzten, besteak beste, dirulaguntzak Europako Batasuneko txikie-

nak izatea, matrikula gastuak, etxetik kanpo ikasi behar dutenen etxebizitza arazoak, garraio "prekarioa eta garestia askotan" e.a.

Horrez gain, Duinaren esanetan, ikasleen arazoak areagotu egiten dira ikasketak amaitu eta gero, lanpostua topatzeko orduan: "langabezia, prekarietatea, ETTak, soldata txikiak, etxebizitza espekulazioak eta beste hainbat arazori egin behar izaten diogu aurre".

## Joan zen asteko istripuari buruzko zuzenketa

**Arabako** Arrazua-Ubarrundia herrian joan zen martitzenean, apirilak 27, gertatu zen istripuari buruz beste bertsio bat eman du Opel Omega markako taxiaren gidariak, Isidro Aranburuk. Antza denez, Valladolidetik Arrasatera zihoan Renault markako kamioiaren kargaren zati bat, hain zuzen ere 6 tonako burdinezko trokel pieza bat, errepidera jausi eta taxiaren aurrealdea jo zutenean gertatu zen istripua. Beraz, bi autoek, Opel Omega taxiak eta Renault Lagunak, ez zuten aurrez aurre jo.

## Etxanizen kasua konstituzionalera

**Jose Mari Etxaniz** presoaren kasua Auzitegi Konstituzionalera erotea erabaki du Bergara Plataformak, Auzitegi Gorenak legeak esaten duena bete ez duelako. Honek guztiak gastuak ekarriko ditu eta, mariskada bat antolatu dute gastuei aurre egiteko. Mariskada maiatzaren 16an Haurren Euskal Jaian zozketatuko da.



# INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

## DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Teleforo Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37



# Era askotako ekitaldiz jositako Gazte lokalaren aldeko asteburu jendetsua

**Arrakastatsua** gertatu zen Gazte lokalaren aldeko herriko gazteek antolatutako Gazte asteburua. Mahainguruetan, pelikula laburren emanaldian, herri bazkarian, musika emanaldietan eta manifestazioan gazte askok hartu zuten parte. "Bergarako Udalak zer egin du hamarkada honetan gazte sektorean?" gaiaren inguruan eguakitzeko antolatu zen mahainguru-

ruan Juventudes Parroquia-leseko, Gaztetxeke eta Gazte lokaleko ordezkariak hartu zuten parte. Udaleko ordezkariak, ordea, ez zen agertu, aurretik parte hartuko zutela hitza eman arren.

Bestela, iragarritako moduan igaro ziren gainontzeko ekitaldiak. Azpimarratzekoa da zapatuko herri bazkaria. Bideberriko arbolapean 250 bat gazte bildu ziren mahaiaren inguruan. Bestal-

de, zapatu eguerdian San Martin plazan emandako prentsaurreko jendetsuan Gazte lokalaren proiektuaren inguruan dabiltzanek orain arte egindakoak eta etorkizunerako asmoak azaldu zituzten. Herriko gazteentzako gune autogestionatu baten aldeko txostena eta estatutuak eginak dituzte, baita aurkezpen gisako bideoa, kantu bat eta firma bilketa ere (proiektua-

ren aldeko 1.000 sinadura baino gehiago lortu dituztela aurreratu zuten). Bestalde, herriko gazteak gai honen inguruan duen iritzia jasotzeko, 15-35 urte arteko bergarrei egindako inkestaren berri eman zuten. Inkestaren emaitzak aurrerago azalduko dituztela esan zuten. Gazte lokalaren proiektuaren inguruan, herriko hainbat musika eta kultur talde murgilduta daude.



Gazte lokalaren aldekoek antolatutako ekitaldiak: eguakitzeko mahaingurua, zapatuko prentsaurrekoa eta herri bazkaria, eta domekako manifestazioa.

**BEHEKO TABERNA**  
Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak  
ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

**KORTA-ZAR Txokolategia**  
Pintxo eta ogibitartekoaren espezialitatea  
Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

**OILAGORRA TABERNA**  
Barrenkalea 21 BERGARA



# Berrigara

366 zenbakia.  
1999ko maiatzaren 7a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefona: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.

**Erredakzioa:** Eneko Azkarate,  
Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.

**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.

**Publizitatea:** Xue Zabaleta.

**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.

**Testuen zuzenketa:**  
Estepan Plazaola, Alex Labaien,  
Mirari Alberdi, Mariipi Laskurain.

**Erredakzio kontseilua:**  
Miguel Angei Elkoroberebizbar,  
Alex Labaien, Gorka Elortza.

**Komikiak:** Bittor Rodriguez,  
Gorka Ortega & Jon Alvarez,  
Alex Ugalde, Unai Azkarate.

**Kolaboratzaileak:**  
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina,  
Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

**Banaketa:** Txantxangorri taldea.

**Inprimategia:** Gertu Koop.  
Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: J.A. Unzurrunzaga.

Tirada: 5.100 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



Berrigara  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## gutunak

*Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### GAZTE LOKALAREN INGURUAN

Giro aparta asteburu honetan bizi izan duguna Bergaran Gazte lokalaren aldekoek antolatutako ekintzen inguruan. Larunbateko bazkaria, igandeko manifestazioa eta jaialdi eta mahainguru ezberdinek ez-ohikoa den giroa ekarri dute gure herrira. Hainbat hilabetetan, Gazte lokalaren inguruko proiektua lantzen eta aurkezten jardun duten gazteak pozik egoteko moduan daude ekintza hauek izan duten arrakasta ikusirik. Hala ere, azterketa baikor honi Udalaren jarrera kontrajarri behar zaio berriz ere, ostiralerako "Udalak zer egin du gazteen inguruan" gaiaren inguruan antolatutako mahainguruan ez baitzen Udal gobernuko ordezkariarik egon eta horrek eztabaida guztiz baldintzatu zuen.

Bergarako EHren aldetik hilabete hauetan zehar lanean ibilitako gazteak zoriondu beharrean gaude, bai landu duten proiektuagatik, bai astebururako antolatutako ekitaldiak direla eta, eta

bereziki, herriko gazteen artean esperantza eta gogo berriak sortzeagatik. Edozein modutan, hausnarketa egiteko garaia ere badela uste dugu.

6 urte pasatu dira Gazte-txea itxi zenetik, eta urte hauetan guztietan Udalak ez du inongo ahaleginik egin Gazte lokalaren gabeziari irtenbidea emateko.

Gaiaren zailtasuna izan da batzuetan erabilitako aitzakia, baina gure ustetan ez dago irtenbide errezik borondatea falta denean eta kasu honetan hori izan da falta izan dena Udal gobernuaren aldetik. Gazteria batzordeak ez du apenas funtzionatu eta gazteekin bilerak egin direnean, hauen presio maila igo delako izan da (Goiko geltokiko okupazioak, udaletxeko arkupe-tan izandako akanpada...), eta erantzun zuzenik jaso barik, gaia aztertuko dela esanez eta, batzuetan, inoiz egin ez diren beste bilera batzuetarako deia luzatuz.

Beste batzuetan lokalen gabezia aipatu izan da; baina honen inguruan esan be-


har da legislatura osoan Udalak pendiente duela herriko lokalen egoera eta erabileraren azterketa, eta ez dela horri heltzeko gai izan; berriz ere borondate falta.

Aurrekoa aipatu eta gero, argi dago aldaketa handia eman behar dela Udalaren aldetik Gazte lokalaren inguruan. Borondatea egonez gero, eta gazteekin batera elkarlanean jardunda posible da egoera honi irtenbidea ematea.

Horretarako, beharrezkoa da gazteria batzordeak benetan funtzionatzea eta herriko lokalen inguruan hausnarketa serioa egitea, eta horrekin batera garrantzitsuena: gazteengan sinistutako behar dugu eta argi izan baliabideak eskainiz gero, gai izango direla era auto-gestionatuan lokalen inguruan herriko gazte guztien ideiei, kezkei, zaletasunei eta abarri erantzuteko gunea sortzeko. Guk, behintzat, ez dugu inongo dudarik.

*Bergarako Euskal  
Herriarrok*

## tira biraka: alex ugalde





■ atrebentzia ezpada

## Errenta aitortpena zuk zeuk eitten dozu?



**Juan Heis**

Ez dut nik egiten, haziendaran eramaten dut, begirada bat bota ondoren. Beti horrela egin izan dut. Aurten oraindik ez dut egin. Asteazken zehar joango naiz.



**Juan Gregorio Alonso**

Bai. Urtero arduratzen naiz. Aitortu behar direnak edo ez direnak nahigo ditut nik eramanez. Dena dela, aurten laguntza eskatu beharko dut fondoengandik.



**Jose Maria Gonzalez**

Normalean beste batzuek egiten didate. Gehienbat erosagoa iruditzen zaidalako. Batzuetan gestoria batean eta bestetan bankoan. Ni neu nahastu egiten naiz.



**Fuen Fernandez**

Oraindik ez dut egin baina haziengandik egiteko ohitura daukat. Ez daukat aitortzeko gauza handirik eta bost minututan egiten didate. Asteazken zehar egin dut.



**Nerea Casaña**

Nik neuk eitten dot. Nere aitortpena oso sinplea da. Ez daukat etxeik eta egin biharrekoa ulertzen dot. Bi urtez horrela egin izan dot. Nere kasuan ez da batere zaila.



**Irene Galdona**

Ni ez naiz horretaz arduratzen. Nere senarraren eskuetan lagatzen dot dana. Betidanik bixok batera egin izan dou eta berai be lantegixan eitten dotse.

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

### OLIVER! ETA ESKAILERA MORDOA

**Mariasun Larrañagak** deitu digu aste honetan BERRIGARARA. Mariasunek bere zorionik beroenak eman nahi dizkie *Oliver!* musikala prestazenez ibili diren denek, azkenean ikuskizuna gozatzeko momentua iritsi baita. Baina Mariasunen ustez emanaldiatarako aukeratutako lekua ez da aproposena: bertaratzeko bide bakar bezala eskailerak dituen hirugarren pisu bat ez da espero dena bezalako jendetza jasotzeko lekua. Mariasunek galdera egin du emanaldia hasi baino zenbat denbora lehenago joan behar ote duen Mariaren Lagundi-ko aretora bere biloba ikusi nahi duen aitona edo amonak, edo arazo fisikoren bat duenak.

■ ikuspuntua: monika belastegi

## Haurrak

Gaur egungo umeak ez dira gu, orain dela hogeit hamar urte, ume gineneko garaietan ginen bezalakoak. Edo baieztapekin honekin bat gertatzen, behintzat, joan den egunean bildutako lan taldekook. Talde nahiko heterogeneoa, bestalde, bai adin aldetik eta baita ingurune aldetik ere.

Gizartea etengabe aldatzen ari da eta garapena, eboluzioa eta modernizazioa bezalakoak, onak direla esaten zai-



gu behin eta berriz. Aldaketa horiek guztien bolak, baina, umeak ere harapatzen omen dituzte, antza denez.

Harapatu, eta nagusien mundutik lehen baino hurbilago laga. Umeak orain hogeit hamar urte, hori, umeak zirenean, umeago gaur egun baino; infantiolagoak eta maltzurragoak bai, baina gaur baino era naturalagoan.

Garapenak eboluzioa omen dakar

eta azken honek teknologia aurreratueneko jostailuak edota gerrak zuzenean telebistan ikusteko aukera.

Honekin guztiarekin hazten den ume baten eta kaniketan, gordeketa edo antxitintxiketan aritzen den beste baten artean ezberdintasunik izatea ez zitzailgun arraroa egin bildutako lagun kuadrilari.

Uste dut, taldekook, hurbilago ikusten genituela geure buruak norbere aitona-amonengandik umeengandik baino, nahiz eta urte gehiagok banatzen gaituzten lehenengoengandik. **B**



# GIDE COLOR



Dekorazio profesionala

•  
Denetik pintura-dekoraziorako

•  
Norberak etxea margotzeko  
pinturak

Milaka kolore  
egiten ditugu  
momentuan



*Egizu  
bisita!*



Luis, zuen zerbitzura.

Ordutegia: 08:00-13:00 eta 14:30-19:15 Zapatuetan: 09:30-13:00

Tf. 943 76 52 42. Faxe 943 76 56 17. Amillaga 5 (Renault ondoan)


## HIZKUNTZ IKASTAROAK ATZERRIAN

- Gazteendako ikastaroak
- Enpresa-munduko profesionalendako ikastaroak
- Etorkizuneko profesionalendako ikastaroak
- Hizkuntz irakasleendako ikastaroak

**HEZKUNTZ JARDUNALDIAK**  
**Maiatzaren 8an, zapatua, egun**  
**guztian zehar, Donostiako**  
**Maria Cristina Hotelean.**  
**EAS-VELE HAN IZANGO DA**  
**Zatoz zu ere!**

**EAS - VELE**

San Martzial 39, 1-C. 20005 Donostia  
Tf. 943 42 80 60. Faxe: 943 42 14 79





## 1922an jaiotako en kinto afaria

**Kinto afaria** izan zuten **1922an jaiotako gizonen bergararrek** joan zen apirilaren 17an. Urtero egiteko ohitura daukate eta aurten ere, elkarrekin mahaiaren inguruan bildu eta betiko kontuei buruz otordua konpartitzeko aukera izan dute. Santa Marinaran meza entzun ostean herriko jate-txe batean afaldu zuten. Aurretik, argazkia atera zuten frontoian.



## Odol emale onenak



**Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak urteko batzar orokorra** egin zuen domekan **Arantzazun**. Eguerdiko mezaren ostean, elkarteak insigniak eta trofeoak banatu zizkien **25 eta 50 odol ateraldi** izan dituztenei. **Julian Aranburu** bergararrak (argazkian) ere trofeo bat eskuratu zuen egindako 50 odol ateraldiengatik (dagoeneko 51.a egin duela aitortu zigun astelehenean). Julianek Bergarako Odol Emaleen Elkarteak martxan jarri zenetik eman izan du odola, urtean hiruzpalau aldiz, eta odola ematea berari primeran datorkiola esan digu, odola ateratzen dioten bakoitzean arinago ibiltzen ei delako. Julianekin batera, **Pablo Hernando**, **Juan Miguel Lizarralde** eta **Pedro Jose Zabaleta** antzuloarrak ere omendu zituzten 50 odol ateraldi egiteagatik. Ondorengo bazkarian Gipuzkoako odol emale ugari bildu ziren domekan Arantzazuko Ostatuan. Zorionak guztiei!!

## Txapako zuloa

Garai batean **Zerrajerako "txapako" langileek**, laminazioan aritzen zirenek, Zabala jatetxearen parean zegoen paretako zulo bat erabiltzen zuten ardoak eta ogitartekoak jasotzeko. Fabrika barrutik, langileek, errepide ondotik pasatzen ziren mutikoei enkarguak agindu eta edari freskoak eta ogitarteko goxoak hartzen zituzten, mutikoei agindutako propina eman ondoren. Orduko ohitura hura gogoratzeko (paretan horrelako beste hiru bat zulo ziren), plaka oroigarri bat jarri zen zapatuan, Labegaraietako jaietan. "Txapako zuloa" dio aipatutako plakak eta bati baino gehiagori oroitzapenak ekarriko dizkio, dudarik ez. Argazkian, ezkerretik eskumara, **Alberto Laspiur**, **Julio Unamuno**, **Jabier Zabala** eta **Juan Carlos** eta **Xasio Amasorrain**.



JUANJE AMASORRAIN

## Zeramologo onenak Bergaran

Joan zen astebukaeran Gasteizen egin zen **Zeramologia Elkartearen IV. kongreso nazional**ean parte hartu zuten estatu osoko 40 bat zeramologia aditu Bergaran izan ziren eguakitzean. Udaletxean harrera egin ondoren, herriko monumentu nagusiak ikusi zituzten, arreta berezia eskainiz **Agirrebeña** etxearen fatxadako XVI. mendeko plaka zeramikoei. **Koldo Pereira** zinegotziak, **Jaume Coll** Zeramologia elkartearen presidentek eta **Antonio Perla** Agirrebeña etxeako plaka zeramikoei buruzko liburua-aren egileak hartu zuten parte udaletxeako ekitaldian. Ondoren, **Xabier Aranburu** udal museologoak herriko monumentuak erakutsi zizkien, amaieran, batzokian afari-merienda egiteko.





■ asteko menua: **toki-ona bodegoia**

## Alkatxofa, ganba eta perretxiko nahaskia



BEGOÑA LETURIONDO  
Toki-ona bodegoiko sukaldaria

### OSAGAIK (4 lagunendako)

- Olioa
- Kipula
- Berakatza
- 100 gramo alkatxofa
- 200 gramo ganba
- 200 gramo perretxiko
- 6 arrautza

### PRESTAKETA

- Zartagin batean, berakatza eta kipula sueztitu.
- Perretxikoak gehitu.
- Perretxikoak biguntzen direnean, ganbak eta alkatxofak gehitu.
- Arrautzak irabiatu eta gatz apur bat bota.
- Osagarri guztiak arrautzari gehitu.
- Zartagin batean, olio apur bat ipini eta arrautzak, osagarri guztiekin, bota eta ondo nahastu. Piskat egiten eduki.
- Eta prest mahaira ateratzeko.

■ adituen esanetan

## Abizenen ordena

AINHOA ALTUNA, *abokatua*

Kodigo Zibilak 109. artikuluan esaten dau filiaziñuak erabakitzen ditxuala abizenak. Legian arabera, filiaziñua aitzak eta amak emonda, lenengo aitxan abizena eta ondorian amana juaten da. Hemezortzi urte bete eta gero edozeñek eska leike Registro Zibilian aman abizena aurretik jartzia. Baitxa adin txikikoa izanda gurasoak euren seme-alaben izenian. Prozedimentua sinplia da; Registro Zibilan arduradunai eskatzen jatzu deklaraziño baten bitxartez. Herriko Registruan esateko, azken hilabete bitxan 3 orden aldaketa eskaera egon die, adin txikiko batena tartian. Gai honek aldaketak eukikoitxu laister.

Martxuan 23an Madridedeko Diputau Kongresuko Boletiniñan azaldu zan lege-proposiziño bateraua (parlamentuko 5 talde politikok adostutakua), Izena, Abizena eta bere Ordenaz. Ostegunian Kongresuko Plenuak aztertuko dau. Goiz da ondiokan onartuko dan proposamenan edukiña jakitzeko; hala ta guztiz be, proposiziño horren edukiñaz eta helburuaz berba bi: nazioarteko rekomendaziñuak jarraituz, gurasuei emoten jakue aukeria lenengo abizena zein izango dan eurak erabakitzeke, umia jaio aurretik. Hola sexuangatiko diskriminaziñua desagertzeko arrerapausua emoten da. **B**

■ bergarako gordailutik

## NONDIK NORAKO HARRESIAK

Imanol Sorondo

Esuskal Herrrian herri asko eraiki ziren XIII. eta XIV. mendeetan; honek ez du esan nahi herriak lehendik ez zirenik gure artean. Esan nahi duena zera da: etxeak bildu egin zirela kaleak sortuz eta denak harresi batzuen barrenean gordeaz. Nafarroa eta Gaztelako Erregeei komeni zitzaien merkataritza babestea eta ugaritzea, eta itsasoko kaiei begiratu eta herri bazuk sendotzea; jendeari ere bai, herri harresidunek eskaintzen duten babesagatik eta merkataritzagatik. Gauza hauek lortzeko erregeek zergen murrizketa eta beste abantaila batzuk eskaintzen zizkieten herri berriei, "pribilejioak"; baina hauek ez dira inolaz ere nahastu behar herriaren betiko ohitura eta eskubideekin.

Bergarako "Herri Berria", "Villa", egiteko erabakia 1268. urtekoa da; udalleteko artxibategian dago agiria; orduan hiru kale sortu ziren harresi batzuen barrenean: Goenkalea, Artekalea eta Barrenkalea. Gutxitan aipatzen dira harresi kontuak Bergarako idatzi zaharretan; behin adibidez, 1348. urtean, isun batzuetatik jasotako dirua harresientzako izango dela esaten da. Baina galdera hau da: nondik norakoak ziren Bergarako harresiak? Badirudi goi aldetik "Monja Zaharren" komentua dagoen tokitik zeudela, eta Barrenkalean, etxeak nola dauden kontuan hartuz, ez da zaila marra bat egitea. Beste alde batetik, San Pedroko eliza bera, sakristi "berririk" gabe noski, izango zen "harresi" goi aldetik, hala izaten baitzen askotan.

Baina, orain dator korapiloa: nondik norakoak goitik beherako harresiak? Hemen ere zertxobait mugatu dezakegu: errespetatu ditzagun kultur etxea eta Burniate zeharkatzen dituen erreka eta Mizpildi aldetik Zurradero aldera gaur izkutuan doana. Gutxi gora-behera, Olaso dorrea eta Ondartza etxea dauden tokitik? Eta nola borobildu Seminario eta Barrenkale izkinako marra? Erabili zituzten harresi zaharreko harriak?

Oraindik zailagoa ematen du beste aldera harresia marraztea: Monja Zaharretatik Gasparrenera, gaur goazen moduan? Burniaterago?

Eta non zeuden atea? **B**





# BOLU GIMNASIOA

**Bolu gimnasioan baduzu zer aukeratu!**

	ASTELEHENA	MARTITZENA	EGUAZTENA	EGUENA	EGUAKITZA
07:30	Mantenimendu gimnasia <i>Iñaki</i>		Mantenimendu gimnasia <i>Iñaki</i>		Mantenimendu gimnasia <i>Iñaki</i>
09:30	Mantenimendu aerobikoa <i>Iñaki</i>	Defentsa pertsonala	Mantenimendu aerobikoa <i>Iñaki</i>	Defentsa pertsonala	Mantenimendu aerobikoa <i>Iñaki</i>
15:00	Fitnessa		Fitnessa		Fitnessa
17:30	Umeen aerobika <i>Ohiana</i>		Umeen aerobika <i>Ohiana</i>		Umeen aerobika <i>Ohiana</i>
18:30	Stepa <i>Ohiana</i>	Circuit traininga <i>Ohiana</i>	Cardio aerobika <i>Ohiana</i>	Circuit training <i>Ohiana</i>	Stepa <i>Ohiana</i>
	Umeen karatea <i>Carlos/Aitor</i>		Umeen karatea <i>Carlos/Aitor</i>		Umeen karatea <i>Carlos/Aitor</i>
19:30	Stepa <i>Idoia</i>	Circuit training <i>Ohiana</i>	Cardio aerobika <i>Idoia</i>	Circuit training <i>Ohiana</i>	Stepa <i>Idoia</i>
	Jujitsu	Mantenimendu gimnasia <i>Idoia</i>	Jujitsu	Mantenimendu gimnasia <i>Idoia</i>	Jujitsu
20:30	Stepa <i>Idoia</i>	Circuit training <i>Idoia</i>	Kardio aerobika <i>Idoia</i>	Circuit training <i>Idoia</i>	Stepa <i>Idoia</i>
	Helduen karatea <i>Carlos/Aitor</i>		Helduen karatea <i>Carlos/Aitor</i>		Helduen karatea <i>Carlos/Aitor</i>

Aranerreaka 9, Bergara. Telefonoa: 943 76 72 91

## URKAND

Profesionalak, irudiaren manipulazio eta tratamendu orokorretan

Bereizmen haundiko digitalizazioa: diapositibak, opakuak, transparentziak...RGB, CMYK.

Inprimaketa digitala, argazkien kalitatea. Koloretako probak RGB, CMYK

Berrukipena

Grabazio digitala. CD

Industria-kartela formatu haundia, plastifikatua

Argazkien produkzio digitala. Profesionalen formatua eta kalitatea

Diseinu grafikoa eta industrialia



Tf. eta faxa: 943 76 30 33. Mugikorra: 630 705 688. E-maila: [urkandigital@facilnet.es](mailto:urkandigital@facilnet.es)

Ozaeta I, behea. Bergara.





## JANTZIDENDAK

Casa Agirre. Bidekurutzeta 18  
 Aroa. Bidekurutzeta 6  
 Bergara Piel. Espaloia 6  
 Cristina. Arruriaga z/g  
 Gallastegi. San Pedro 15  
 Ikus-Bi. Irala 5  
 Janden. Irizar 3  
 Laket Barrenkalea 35  
 Lide. Bidekurutzeta 19  
 Mujika jostundegia. Barrenkalea 1  
 Prakak. Burdiñate 1  
 Subijai. Irizar 1  
 Zatoia. Barrenkalea 4  
 Zubikua. Barrenkalea 24




## HARATEGIAK

Lazpiur J. Komenio 2  
 Leturia J.L. Artekalea 5  
 Leturia J.M. San Pedro 24  
 Rezola L.M. Matxiategi 7  
 Urzelai P. Ibargarai 7  
 Zurutuza J.M. Urteaga 9  
 Igarza J.J. Irizar 3  
 Imaz S. Aranerreka 1  
 Leturia I. Zubiaurre 23



## BURDINDIAK

Gaztelu burdindia. Pedraza 1  
 Gisasola burdindia. Zurutuza 1  
 Mujika burdindia. Esterron 1  
 Ardatza brikola. Esterron 1



## ZERBITZUAK

Ecuador bidaiak. Arruriaga 10  
 Alaitzu bidaiak. Zurradero 4  
 Carasa, Cilveti, Lacort y Cia. Fleming doktorea 3  
 Lagun Aro. Ramon Maria Lili 6  
 Zurich. Barrenkalea 44  
 Grupo A4 aholkularitza. Artekalea 16  
 TGB aholkularitza. Matxiategi 36



## ELEKTRIKOAK

Barrenkalea 1  
 Matxiategi 1  
 Radioa. San Pedro 1  
 Mastekoa. San Pedro 1  
 Ibargarai 1  
 Aranzaga 1  
 Villaga 1

## OSTALARITZA

Miner banatzailea. Matxiategi 23  
 Larrañaga banatzailea. Martoko 3  
 Agirrebeña. Ibarra 2  
 Antxoni. Fraiskozuri 4  
 Ariznoa. D. Irala 1  
 Arrano. Kruz Gallastegi  
 Avenida. Fraiskozuri 6  
 Azpeitxi. Aranerreka 13  
 Canalejas. San Antonio 6  
 La casa del pueblo. Bidekurutzeta 23  
 Deportivo. Bidekurutzeta 3  
 Erreki. Fraiskozuri 3  
 Euskalduna. Osintxu  
 Ganbara. D. Irala z/g  
 Gaspar. Barrenkalea 31  
 Guria. Bidekurutzeta 5  
 Infernukua. Masterreka 23  
 Kaixo. Zurradero 4  
 Kortazar. Barrenkalea 16  
 Lasa. Ozaeta jauregia  
 Maxim's. Simon Arrieta 5  
 Nahikari. Masterreka 20  
 Osintxu erretegia. Osintxu 24  
 Pol-Pol. Komenio kalea z/g  
 Sirimiri. Barrenkalea 3  
 Tartufo. San Juan auzoa z/g  
 Txuringo. Osintxu 14  
 Zabala. Ibarra z/g  
 Zer-Nai. Telesforo Aranzadi 4  
 Ziripot. Bidekurutzeta 11  
 Zumelaga. San Antonio 5



## OIHALAK

Anezka. Espoloia 8  
 Artazi. Katabia z/g  
 Casa Ugalde. Bidekurutzeta 13  
 Edel tapizdenda. Bidekurutzeta 14  
 Fernandez. Ibargarai 2  
 Gaston y Daniela. Kruz Gallastegi 3  
 Maher. Bidekurutzeta 29



## JANARIDENDAK

Aldi-Irala. Irizar 3  
 Erosle Mazorriaga. San Pedro 21  
 Hurbil dietetika. Aranzadi 2  
 Itxas Eder arraindegia. Mintegia 5  
 Kabutzia arraindegia. Fraiskozuri 6  
 Larrañaga gozotegia. San Pedro 9  
 Goxo-Toki gozotegia. Irala 3  
 Laskurain janaridenda. Artekalea 4  
 Mari Karmen arraindegia. Kruz Gallastegi  
 Mujika gozotegia. Artekalea 3  
 Zapaterikua janaridenda. Joan XXIII.a plaza.  
 Txukun. Fraiskozuri 6



Har ezazu parte  
 San Pankrazio egun  
 Maiatzaren 12an hemen agerian  
 tabernetan detaile bat izango du



**AK-  
ETA**

Integi 1  
Pedro 8  
Kurutzeta 8  
Masterreka 4



**OPTIKAK-  
BITXITEGIAK-  
ARGAZKIAK**

Manso optika. Irizar 2  
Argazki. Barrenkalea 16  
Foto Sistema. Ibargarai 12  
Kiñu. Barrenkalea 35  
Arantza bitxitegia. Barrenkalea 4  
Etxeberria bitxitegia. Bidekurutzeta 16



**LOREAK ETA  
PENTSUAK**

Ninika. Ramon Maria Lili 3  
Lislore. Barrenkalea 28  
Ibarguren pentsuak. San Pedro 3  
Narbaiza pentsuak. Masterreka 22

**EGAILUAK**

Barrenkalea 6  
Habitxiategi 3  
Radio. San Pedro 25  
San. Masterreka 2  
Ibargarai 2  
Aranzadi 3  
Amillaga 10



**PAPERDENDAK-  
TINDATEGIAK-  
BESTE**

Elkar. Arruriaga 1  
Idatzi. Barrenkalea 14  
Ikasle. Fleming doktorea 11  
Marcó. Bidekurutzeta 44  
Akort. Mugertza 7  
Jolas. Barrenkalea 27  
Onena tindategia. Barrenkalea 29  
Renteri tindategia. Ikerleku 4



**KIROLAK**


Aisor. Bidekurutzeta 7  
Jauja. Irizar 3  
Xamartin. Ibargarai 20

**unean!**  
riaren komertzio eta  
oie zuen bisitan.



**PERFUMERIAK**

Amaia. Barrenkalea 25  
Alga. Ibargarai 10  
Camacho. Bidekurutzeta 24  
Egiluz. Irizar 3  
Goiara. Irala 3  
Igaro. Barrenkalea 35



**MZERIAK-  
LZERIAK**

Aranzadi 2  
Bidekurutzeta 6  
Irala 5  
Habitxiategi 1  
Zubieta 28  
Artoko 32  
Arrieta 1  
Irala 5



**OINETAKOAK ETA  
POLTSAK**

Agirrebeña. Urteaga 5  
Aldasoro. Espoioa 4  
Carmen Garate. Bidekurutzeta 15  
Egizabal. Bidekurutzeta 13  
Galarreta. Irizar 2  
Garnish. San Pedro 12  
Lazkano. Barrenkalea 15  
Lonbide. Bidekurutzeta 5  
Retegi. San Pedro 18  
Yoar. Barrenkalea 9



**ARIAK,  
DRAZIOA**

Martin plaza 2  
Barrenkalea 23  
Artekalea 8  
Artekalea 6  
Barrenkalea 18  
Espoioa 10



# Heriotza aseguruak

## BIDAIETARAKO LAGUNTZA

Munduko edozein tokitatik  
egin beharreko garraioak barne

## HERIOTZAK

Zerbitzu onenak prezio onenetan

*Baduzu aseguru hau? Ez baduzu, ez estutu,  
zatoz gure bulegoetara.*

 **MAPFRE**

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

# UGARTE

## AROSZTEGIA

## ALTZARIAK DEKORAZIOA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan 1, (Barruti). BERGARA.  
Telefona eta faxa: 943 76 54 91





Oliver! musikaren emanaldietan 150 lagun inguru izango dira taula gainean. Beste 50 pertsona laguntzaile lanetan arituko dira.

# Oliver!

## Orfeoiaren eskutik euskarazko bertsioaren estreinaldia

**Bergarako Orfeoiaren 75. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, Oliver! musikaren estreinaldia izango da bihar, zapatua, 22:30etan Mariaren Lagundiko aretoan. 1960an Londresen estreinatu zenetik, hamaika aldiz antzeztu da musikal ezagun hau mundu zabalean eta Orfeoiaren eskutik euskarazko bertsioarekin gozatzeko aukera izango dugu astebukaera honetan eta hurrengoan.**

**O**liver Twist, Charles Dickens idazle ingelesaren (1812-1870) lanik ezagunenetakoa bat emanaldika argitaratu zen Bentley's Miscellany aldizkarian 1837.etik 1839. urtera bitartean eta berehala sekulako ospea lortu zuen. Dickens Ingalaterrako idazle ezagunenetakoa izatera iritsi da eta bere lanak mundu osoan argitaratu dira. Shakespeare handiaren ondoren, idazle ingeles irakurriena da Dickens. Lionel Bart bere herrikideak, nobelaren oinarritutako libretoa, musika eta

abestiak idatzi zituen eta arrakasta handiz estreinatu zen Londresen 1960ko ekainean. Barten meriturik handienetako bat Oliver Twist bezalako istorio melodramatiko batetik komedia musikal bat idaztea izan zen. Oliver! muskala sei urtez egon zen Londreseko karteldegian eta 2.618 antzezpen egin ziren, ordurarteko antzerki errekorra hautsiz. Lionel Barten lanak antzerki musikaren iraultza suposatu zuen bere garaian. New Yorken ere kritikaren zein publikoaren erantzun ezinhobea

jaso zuen eta 1963ko Tony sarietan (antzerki munduko Oscarrak) Bartek musika onenari eta abesti hitz onenei zegozkien sariak jaso zituen. 1968. urtean, berriz, Carol Reed zine zuzendariak Barten musikala pantailaratu zuen eta filmeak sei Oscar irabazi zituen, tartean filme eta zuzendari onenarenak.

Estatu mailan Madrileko Colegio Salesianos Atochako antzerki taldeak musikaren gaztelarazko bertsioa aurkeztu zuen iaz eta hain zuzen ere filmearen eta madrildarren bertsioaren arteko



## ASTEBUKAERA HONETAN ETA HURRENGOAN OLIVER! MUSIKALAREN SEI EMANALDI IZANGO DIRA

**O**liver! musikala bihar, maiatzak 8, estrainatuko da, 22:30etan Mariaren Lagundiko aretoan. Aurretik, 18:00etan, hurrei zuzendutako aurre estreinaldia izango da. Domekan beste emanaldi bat izango da 19:00etan. Astebukaera honetarako sarrerak Lazkano oinetako dendan jarriko dira salgai eta hurrengo astebukerako emanaldikoak, berriz, Kultur Etxean salduko dira. Datorren zapatuan, hilak 15, 19:00etan eta 22:30etan izango dira emanaldiak eta domekan, hilak 16, 19:00etan. Sarrera zenbatuak izango dira; biharko haurren emanaldirako sarrerak 500 pezetan salduko dira eta gainontzeko emanaldietakoak, berriz, 2.000 pezetan. Bergarako emanaldiak Lionel Bart konpositorearen omenez egingo dira, izan ere Oliver! musikalaren egilea joan zen apirilaren 3an hil zen 68 urte zituela.

Oraingoz behintzat, iragarritako sei emanaldiak izango dira eskainiko diren bakarrak. Ikusle goaren erantzunaren arabera, baliteke Miserableak ikuskizunarekin gertatu zen bezala, Orfeoiak beste hainbat tokitan Oliver! aurkeztea. Era berean, Orfeoi-koak ETBekin harremanetan izan dira musikala grabatzeko. Oliver! en bideo eta zine eskubideak Columbia produktorearenak (1968. urtean Carol Reed zuzendariaren filmea ekoiztu zuena) dira eta Madrilen Columbiak duen egoitzan inolako oztoporik jarri ez badiete ere, New Yorkeko agentariekin negoziatu beharko du Orfeoiak musikalaren emisioa. Beraz, ETBk ez du hasiera batean behintzat Oliver! grabatuko.



Oliver! musikala ikustera joaten direnei Oliver! egunkariko bigarren alea banatuko zaie. Charles Dickens bere garaian kazetaria izan zenez, idazle ingelesaren ofizioa omendu nahirik, lau orrialdeko aldizkaria kaleratu zuen Orfeoiak martxoan, herri-tarrei Oliver! ezagutzera emateko asmoz. Astebukaerarako bigarren alea prest izango da eta bertan musikalaren inguruko xehetasunak, Orfeoiaren historia edo 75. urteurreneko ekitaldien berri emango da. Lehendabiziko zenbakiak 3.000 aleko tirada izan bazuen ere, bigarren honetarako tirada handitu egingo da.

Oliver! musikala ikustera joaten direnei Oliver! egunkariko bigarren alea banatuko zaie. Charles Dickens bere garaian kazetaria izan zenez, idazle ingelesaren ofizioa omendu nahirik, lau orrialdeko aldizkaria kaleratu zuen Orfeoiak martxoan, herri-tarrei Oliver! ezagutzera emateko asmoz. Astebukaerarako bigarren alea prest izango da eta bertan musikalaren inguruko xehetasunak, Orfeoiaren historia edo 75. urteurreneko ekitaldien berri emango da. Lehendabiziko zenbakiak 3.000 aleko tirada izan bazuen ere, bigarren honetarako tirada handitu egingo da.

musikala landu du Orfeoiak azken hila-beteotan. David Azurza eta Valen Moñux musika eta eszena zuzendariak ditugu. Valenen arabera, "Orfeoiko 75. urteurrena ospatzeko zerbait berezia egin nahi genuen. Zoritxarrez, gure arloa den musika korala gero eta minoritarioagoa da eta hori dela eta zerbait popularragoa egin nahi genuen. Musika koralerak gero eta gazte jende gutxiago hurbiltzen denez, bereziki gazte jende-ari eta gaztetxoei zuzendutako musikal bat egitea pentsatu genuen, adin guztietako publikoarengana heltzeko. Eta zentzu horretan Oliver! musikalak baldintza guztiak betetzen ditu".

### EUSKARAZKO LEHEN BERTSIOA

Obra aukeratu ondoren, Cameron Macintosh Ltd. produktorearekin (Miserableak musikalaren eskubideak ere berak ditu) negoziazioak hasi ziren. Londresetik baimena lortzea ez zen lan

Lionel Bart-ek idatzitako  
Oliver! musikalak izugarritzko  
arrakasta lortu zuen 1960ko  
hamarkadan

erraza izan; Oliver! euskaratzeko baiezkoa jaso ondoren, lehenbizi kantu batzuen bertsioak bidali behar izan zituzten Ingalaterrara eta musikal osoa landu eta gero, azkenik Oliver! euskaraz antzestu ahal izateko baietza eman zieten. Miguel Moñux, Pello Txintxurreta eta Margareta Allgrem izan dira euskarazko moldaketaz arduratu direnak. Orfeoikoek ez dute esan nahi zenbateko diru kopurua ordaindu behar izan duten musikalaren eskubideengatik baina ikuskizun berriaren aurrekontua 6 milioi pezetakoa da.

Bestalde, Interneten Oliver! lanari buruzko informazioa bilatzen ari zirela,

**URRATS**

TABERNA

**KOKTEL BEREZIAK  
GAUETAN**

Ibargarai 4  
943 76 52 92

**FERRETERIA  
INDUSTRI HORNIDURAK**

**LAKOTA** C.B.

Amillaga 1, 3 pabilioia. 217 posta kutxa  
Telefonoak: 943 76 08 32 / 76 01 96  
Faxa: 943 76 08 32

**PINTXO eta BOKADILOK  
SEKULAKO MARTXA!!**

**EUXEBIO II**


Irala z/g ☎ 943 76 07 92



Orfeoikoek Colegio Salesianos Atochakoen bertsioaren berri izan zuten eta berehala beraiekin harremanetan jarri ziren. Madrildarrak Orfeoia-ekin kolaboratzeko prest azaldu ziren lehen momentutik eta beraien laguntza ezinbestekoa izan da musikala aurrera ateratzeko. Hain zuzen ere, beraiek erabilitako eszenografia, atrezzo eta jantziak erabiliko ditu Orfeoiak. Kukumak eszenografiaren egokitzea egingo du eta, bestalde, hainbat jostunek Orfeoia-ekin kolaboratu dute, 70 bat traje berri eginez.



Julen Iñarra, *Oliver*. Aritz Ernabide, *Tunante*.



Joseba Iparragirre, *Bumble jauna*.



Isabel Juldain, *Corney alarguna*.



Rafa Moñux eta Blanca Narbaiza, *Sowerberry senar-emazteak*.



Argiñe Agirrezabal, *Nancy*.

**PARTITURA GUZTIAK**

Orfeoia-aren erronka nagusietako bat musikal osoa, Lionel Bartek idatzitako abesti guztiak eskaintzea izan da eta, beraz, ez da Miserableak-en kasuan bezala selekzio bat izango. Guztira, 14 eszena eta 21 abesti eskainiko dira. Musikalak bi ordu inguruko iraupena izango du eta bi ekitaldien artean atsedena izango da. Orfeoia eta Orfeoi Gaztea, Musika Eskolako ikasleak, koreografia taldea, 15 musikoz osatutako orkestra eta Gazteen abesbatza izango dira taula gainean, 150 lagun guztira. Beste 50 pertsona laguntzaile lanetan arituko dira.

Protagonisten artean, Patxi Agirre (Charles Dickens), Argiñe Agirrezabal (Nancy), Aritz Ernabide (Tunante), Karlos Etxaniz (Bill Sikes), Julen Iñarra (Oliver), Joseba Iparragirre (Bumble jauna), Isabel Juldain (Corney alarguna), Rafa Moñux eta Blanca Narbaiza (Sowerberry senar-emazteak) edo Ma-

ria Jesus Ugaldere (Bet) izenak aipa daitezke. Alicia De Cesaren eta Ion Aranbarriren koreografiak ere berebiziko garrantzia izango du; Aranbarririk berak lehen dantzariaren papera izango du eta berarekin batera herriko neska talde bat arituko da dantzan.

Miserableak eta Oliver! konparatzeko orduan, Valen Moñuxek antzekoak eta aldi berean desberdinak direla diosku; "Miserableak ikuskizunean ez zegoen dialogorik eta historia kontatzeko narratzailea erabili genuen. Hemen, berriz, ez da horrelakorik eta gidoia bera da istorioaren haria, kantoreek aktore lanak egin behar dituzte zenbaitetan eta horretan sartzea lan gogorra eta zaila izan da. Komedia musikal klasikoa da Oliver! eta dialogoak eta abestiak tartekatzen dira. 1950eko hamarkadako amerikar musikalekin apurtu eta musikaletan estilo berria asmatu zuen Lionel

Bartek, gero jarraitu egin zena gainera. Miserableak Oliver!-en semea ere bada. Miserableak-en egileek Londresen ikusi zuten Oliver! bere garaian eta Ingalaterran Dickens eta Oliver Twist ezagutzen baziren, beraiek Victor Hugoren Miserableak eleberria hartu zuten oinarritzat. Biak ere familia musikal bereko semeak dira, musika estiloa berdina da bietan. Gure kasuan zaila izango da Musika Eskolaren 10. urteurrena ospatzeko egin genuen Miserableak ikuskizuna gainditzea, orduan sorpresa efektua gure alde geneukalako. Baina ikusleek izango dute azken hitza".

Orfeoia-aren erronka nagusietako bat musikala osorik eskaintzea izan da, 14 eszena eta 21 abesti guztira



Maria Jesus Ugalde, *Bet*.



Karlos Etxaniz, *Bill Sikes*.

**CAMACHO**  
Drogeria Usaindegia  
Bidekurutzeta 24 BERGARA  
☎ 943 76 13 35

**LASA**  
*Jatetxea*  
OZAETA JAUREGIA  
Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29

RPS: 292/98  
  
**NARE**  
psikologoak  
HAURRAK-HELDUAK-BIKOTEAK  
Isasi 17, 1-B EIBAR  
Tf. 943 20 05 95





# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

### DOMEKAN BARRUAN

KOPA TXAPELKETAKO FINALERDIAK

17:00: Pagomendi-Guadalest

Antolaketa

18:00: Bar Canalejas-Azpeitxi Jatetxea

Antolaketa

## argi!

### Play ofetako final erdiak

Dagoeneko badakizkigu play ofetako finalerdiak jokatzeke sailkatu diren bi talderen izenak: Bildurbarek Opel/Lam eta Errotagain. Bildurbarek Opel/Lam, Bar Canalejas eta Pagomendi partiduan garaile izango denaren kontra arituko da eta Errotagain, berriz, Ortz eta A Ze Flaxa Etxagi partiduko garailearen aurka.

Aurten play ofetako finalerdiak jokatuko dituzten lau taldeak lehen mailakoak dira. Lehen mailan aritu ez den SLP taldea izan da finalerdi jokatzeke gertuen izan dena.

## nesken futbitoa

### EMAITZAK

Nifits-Gu Geu	1-8
Potzu ta Zapaburuak-Tetsi	20-1

### SAILKAPENA

Gu Geu	12 puntu / 4 partidu
Potzu	12 puntu / 5 partidu
Nifits	3 puntu / 4 partidu
Tetsi	0 puntu / 5 partidu

### PARTIDUAK

Domekan, Miguel Altunan

16:30: Nifits-Tetsi / Potzu Ta Zapaburuak

17:30: Gu geu-Potzu Ta Zapaburuak / Nifits

## jokoz kanpo



JASONE  
LARRAÑAGA  
Potzu ta Zapaburuak

**G.** Zer moduz ari zarete txapelketan aurten?

**E.** Iazkoarekin konparatuta talde gutxiago daude eta antolaketa lanak ere guk egin behar ditugu, baina lehenengo urtea izateko moldatzen gara.

**G.** Noiz arte iraungo du txapelketak?

**E.** Bi itzuli egiteko asmoa zegoen hasieran, baina talde gutxi izatean guk geuk erabaki beharko dugu. Gogoaren arabera.

**G.** Ipintzako txapelketak zergatik du arakasta handiagoa nesken artean?

**E.** Egia esanda, joan zen urtean harrituta gelditu nintzen izena eman zuten taldeen kopuruarengatik. Nik neuk ez nuen nesken futbol txapelketa aterako zenik espero. Batzuek futbola nahigo dute areto futbola baino eta udan izatean jendea gehiago animatzen da.

**G.** Zu ere antolaketa batzordean zabil-tza Ipintzan.

**E.** Txapelketako sailkapenaren ardura eramango dut.

**G.** Mutilek nesken futbola serio hartzen dute?

**E.** Ez. BKEko partidua ikustera ez da inor etortzen.

**G.** Azkenaldian entzundako komentari-rik?

**E.** Behin, mutil batek, neskak ordu batzuetan baloia hormara jauritzen jarriko gintuela esan zuen baloia kontrolatzen ikasi dezagun. Bere ustetan partiduetan ez genuen baloia ondo menderatzen.

## gora eta behera



### Kopako finalerdiak

Domekan ezagutuko dira finala jokatuko duten bi taldeak. Lehen mailako hiru talde, Bar Canalejas, Azpeitxi Jatetxea eta Pagomendi, eta bigarren mailako bakarra, Guadalest, izango dira finalerdietan. Azken honek egindako lana azpimarratu behar da, lehen mailan jardun izan ez duen bakarra delako.

Guadalest-ek lehen mailako Ortz taldea kopatik kanpo utzi zuen. Azpeitxi play ofetatik berehala kanporatu bazuten ere, tinko dihardu kopa txapelketan. FACek, Bar Canalejasen kontrako partidua galdu egin bazuen ere, Bar Canalejasekoak larri ibili ziren partidua irabazteko.



### Mongatxurak

Aurtengoa ez da Mongatxurak taldearen denboraldia izan. Iazko txapelketan, play off eta kopako finala jokatzerara heldu ziren, azkenean biak galdu zituzten arren. Azken jardunaldian, Errotagain taldeak play ofetatik kanpo utzi du, 3-1eko emaitzarekin.

## emaitzak

### PLAY OFFAK

Errotagain-Mongatxurak	3-1
SLP-Bildurbarek Opel/Lam	2-6

### KOPA TXAPELKETA


Mol(ko)lotov-Azpeitxi Jatetxea	1-9
Ortz-Guadalest	1-2
Bar Canalejas-FAC	6-4
Jauja OH Zerezos-Pagomendi	2-4

# Dixula

## BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32  
Tf. 943 76 44 95

## GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

## PISZINETAKO TABERNA

### Bokadiloak Pintxoak Kazuelitak

Boni Laskurain z/g  
Tf. 943 76 53 55



## kronikak


**Futbola**  
**Lehen maila-**  
**ko kadeteak**  
**2. postuan**

Kadeteek, Donostiako Berrio zelaian jokatu zuten Antiguoko taldearen kontra eta 2-2 egin zuten markagailuan. Unamuno eta Jausororen mutilek ez zuten lehen zatian joko ona erakutsi. Aurkariak, teknikoki bergararrak gainditu eta bi gol egitea lortu zuten.

Bigarrean, berriz, bergararrak indartsu eta gogoz irten ziren zelaira eta partidua berdintzea lortu zuten. Lehen gola Miguel Angelek sartu zuen eta partidua amaitzeko bi minuturen faltan, Julen Aranburuk egin dako golarekin partidua berdintzea lortu zuten. Entrenatzaileen hitzetan "partidu polita izan zen eta bergararrak erakutsitako indarra azpimarratu beharra dago".


**Eskubaloia**  
**Iraundi**  
**eskas**  
**Kopan**

Bergara Iraundi taldeari bi partidu besterik ez zaizkio falta Gipuzkoako Kopa txapelketa amaitzeko. Guz-tira lau partidu jokatu ditu eta laurak eskutik joan zaizkio. Honek, taldea azken postuan utzi du.

Azken partidua Ormaiztegiren aurka izan zen eta 28-17 galdu zuten. Partidua-ren lehendabiziko zatian 18-7 joan ziren galtzen. Aurkariak baloi asko lapurtu zizkieten bergararrei eta aukera hauek golak egiteko aprobetxatu zituzten. Bigarren zatian bergararren joko hobetu egin zen markagailua 10-10 berdintzea lortu zutelarik, baina azken minutuetan, Ormaiztegiko taldea berriz ere aurreratu zitzaizen Lijorenei.


**Saskibaloia**  
**Bolsos**  
**Bergarak**  
**9. amaitu du**

Saskibaloiko talde nagusiak oporrak hartu zituen joan zen eguaztenean, Pais Vasco Siglo XXI taldearen kontrako partidua jokatu ostean. Bergararrek ez zuten partidua irabazterik izan. 71-91 galdu zuten.

Lehen zatian aurretik joan ziren markagailuan 2 eta 4 puntutako aldearekin. Dena dela, lehen zatiko azken bi minutuak iritsi zirenean, aurkariak markagailua berdindu eta berehala aurreratu egin ziren. Bigarren zatian kanpotarrek partidua goitik behera dominatu zuten. Entrenatzaileen hitzetan, "azken partidua izanik motibazio faltan geunden. Gutxienez, hasierako helburua bete dugu eta maila mantendu dugu".

**JON UNAMUNO/ Iberdrola taldeko txirrindularia**
**"Hilean 2.400 km egiten ditut"**

**Hirugarren urtea darma afizionatuetan eta joan zen asteburuan profesionalekin batera, Errioxako itzulia korritu zuen. Beasaingo Iberdrola taldean lehendabiziko urtea betetzen ari da eta Gorkako txirrindulari igoeran, hirugarren urtez, Bergarar onenaren saria jasotzen ikusi genuen.**

**G.** Errioxako itzultik etorri berri zara.

**E.** Lehendabiziko aldia izan da profesionalekin aritu izan naitzena. Lautadan nere burua nahiko ondo ikusi nuen baina aldapetan larri samar ibili nintzen. Ez da batere erraza profesionalei jarraitzea.

**G.** Hurrengo lasterketa noiz?

**E.** Zapatuan Berriatuako lasterketa korrituko dut eta, ondoren, Bidasoako itzulia hasiko da.

**G.** Zer deritzozu lagunak egin dizuten lagunarteari buruz?

**E.** Joan zen urtean inguruko lasterketetara etorri ziren eta harrez gero, gehienetara inguratzen dira. Lagunak bidean aurkituko dituzula jakiteak indarra ematen dizu eta motibazioa handitzen du. Errioxako itzulian gainontzeko txirrindulariek lagun talde onena izan zela esan zidaten. Izugarri animatu zuten eta eskertzen diet.

**G.** Esfortzu handia eskatzen du txirrindularitzak?

**E.** Bai. Egunero entrenatzen dut. Batzuetan gehixeago, bes-

tetan gutxiago. Hilabetean, 2.400 km inguru egiten ditut. Aurrendenboraldia eta denboraldia kontutan izanda, hilabete besterik ez dut jai eta orduan aprobetxatzen dut urtean zehar egin gabekoa egiteko.


**KARTELDEGIA**
**FUTBOLA**
**Bergara-S. Luis Ikastetxea**

Bigarren mailako kadeteak

Zapatua. 15:30. Ipintza

**Bergara-Aretxabaleta**

Bigarren mailako jubenila

Zapatua. 17:30. Ipintza

**Bergara-Billabona**

Lehen mailako kadeteak

Domeka. 11:00. Ipintza

**ESKUBALOIA**
**Bergara-Aloña Mendi**

Senior maila

Domeka. 12:15. Labegaraieta

**PILOTA**
**BERGARA HIRIA SARIA**

Promesak

- Amerika eta Bengoetxea/

Antxi eta Peñagarikano

Afizionatuak

- Otaegi eta Zabala/

Arbizu eta Errasti

Martitena. 19:30. Pilotalekua

**HERRI ARTEKO TXAPELKETA**
**Bergara-Zumarraga**

Eguakitza. 19:30. Pilotalekua



# Hirugarren mailarako txartela eskura

## Lau jardunaldiren faltan, Bergarak Aloñari 4 puntuko abantaila

Lau jardunaldiren faltan, eta 12 puntu jokoan izanirik, Nietorenak sailkapenaren lehen postuan daude, bigarren dagoen Aloña Mendiri lau puntuko aldea atera diotelarik. Etxean, Mutriku eta Urola taldeei egin beharko diete aurre. Etxetik kanpo, berriz, Baskonia (asteburuan) eta Aloña Mendiri (Pazkue-tan).



Nietoren taldea bi urtean bi maila igotzera iritsi liteke, joan zen denboraldian Preferentera igo ziren eta.

Sailkapenari begiratzea besterik ez dago preferente mailako talderik onena Bergarako mahoneroak direla jakiteko. Hogeitamalau punturekin daude eta maila osatzen duten 20 taldeetatik, gol gehien egin dituen bigarren taldea da. 66 gol egin ditu. Kasu honetan Aretxabaletako UDAk hartu dio aurre, 68 golekin.

Hala ere, gure taldean dago preferente mailako pitxitxia. Errasti eibartar aurrelariak, 20 gol egin ditu aurtengo denboraldian eta momentuz, pitxitxia da. Bestalde, bergarrek 33 gol besterik ez dituzte jaso, inork baino gutxiago.

### LEHEN POSTUA NAHI

Enrique Nieto entrenatzailearen ustetan, "liga aurrera doan heinean presioa gero

eta handiagoa da, are eta gehiago lehen postua mantentzen badugu. Partidu bakarra irabaziz gero, bigarren postua ziurtatuta dago baina ez zaigu hori interesatzen. Liga gehiegi luzatuko litzateke. Lehen postua nahi dugu eta hori lortzeko lanean dihardugu". Lehendabiziko postuan sailkatuz gero, Nietorenak zuzen-zuzen igoko lirateke hirugarren mailara. Bestalde, Bizkaia eta Arabako preferente mailan 2. eta 3. sailkatutakoekin, mailaz igotzeko balio izango lukeen liga jokatu beharko lukete.

### LAU ASTE ERABAKIOR

Lau aste besterik ez dira falta festa mundiala izan daitekeena edo ilusioak zapuztu ditzakeen eguna iristeko. Bergararrak fin ari dira lanean igoyerak eskutik ihes egin ez dezan.

Asteburuan Baskoniaren kontra jokatuko dute. Baskoniak galdu egin zuen azken partidua eta taulako 16. postuan dago. "Aloñaren kontra aritu aurretik bi partidu ditugu, Baskonia eta Mutrikuren kontrakoak eta azken hau gogorrena izango da. Gure buruari begiratu behar diogu. Lasai jokatu

eta lehen postua defendatu behar dugula pentsatu beharra dago baina mailaz igo behar dugun ideia burutik aldentuta". Nietok, jokalarien maila hobetu egin dela eta egindako lana azpimarratu du. "Partiduetan zehar jokalaria guztiak zelairatzen saiatzen naiz. Une honetan, talde egonkorra daukagu baina jokalaria guztiei eman behar zaie jokatzeko aukera, betiko taldeak ez du betirako iraungo eta jokalaria edozein unetan zelairatzeko prest egon behar dira. Zelaia zapaldu ez duenak ezin du partidu onik egin". **B**

**Usoa Pub**



☎ 943 76 38 57  
Irala 1

**Sugoi**

ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA

**GURIDI** altzariak

Era guztietako  
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

**Deco-Textil**  
**ZANGITU**

Etxerako lenteria  
Alfonbra nazionalak eta  
ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, eta abar.

**Herrilagunak 3-5**  
☎ 943 76 08 69



## Andaluziarrak saritu nagusiak Estatuko Areto Futbol Txapelketan



Andaluziako bi taldeak Labegaraietan, partiduak jokatu aurretik.




**Estatutik** Euskal Herrira gerturatu ziren selekzioen artean, Andaluziak bi sari nagusi lortu zituen, domekan, Urretxun jokatu ziren areto futboleko finaletan.

Senior mailako mutilen eta nesken txapelketa irabazi zuten. Jubenil neskei dago-kenez, Aragoi izan zen txapel-dun eta jubenil mutile-tan, berriz, Valentzia.

Gogoratu dezagun, txapel-dun izandako bi talde andaluziarrak, Bergaran jokatu zituztela, finalera iritsi aurreko partiduak. Txapel-dunak Bergaran izan ziren.

## II. Bergara Hiria Karate Saria

Domekan jokatu zen II. Bergara Hiria izenez ezagutzen den infantil eta jubenil mailako txapelketa, udal pilotalekuan. Goizeko hamarretatik aurrera, 110 haur ibili ziren katetan oinarrituta dagoen txapelketa jokatzeko. Haur hauen artean, 18 inguru Bergarakoak izan ziren. Guztiek maila paregabera erakutsi zuten eta hauen artean, infantil mailako mutiletan, Bergara-Shotokan taldeko Oier Tola izan zen. Gerriko berdetik beltzera dihoan atalean hirugarren sailkatu zen. Bestalde, bertan bildutako guztiek eskainitako maila paregabera izan zela ere aipatu beharra dago.



## Elkoro lehen bergarra Labegaraietako txapelketan

**84 txirrindulari** bildu ziren Labegaraietako jaietan egin zen lasterketan. 63 kilometroko ibilbidea egin ondoren, 50 txirrindulariek egindako sprintean Iban Ruiperez, Bruesa taldekoa izan zen azkarrena, 1:45:53-ko denborarekin. Tropel osoak denbora bera egin zuen eta bertan, bost bergarar izan genituen, guztiak Caravanas Oñate taldekoak. Bergararik azkarren ibili zena, Mikel Elkoro izan zen, 28. postuan iritsi zelarik. Bestalde, larunbatean, Lokatzaren izenean jardungo den Erik Cuevas osintxuerra Azkoitiko infantil mailako lasterketan izango da.

## Angiozarko Bira zapatuan

**Goizeko** 08:30etan emango diote hasiera Angiozarko Birari, 110 kilometroko ibilbidea egitera prest agertuko diren txirrindulariek. Angiozartik irten eta Bergara, Eskoriatza, Arlaban, Legutio, Otxandio eta Urkiolara iritsiz bat, hamaiketako izango dute. Ondoren, Durango, Areitio, Eibar eta Bergara zeharkatu beharko dituzte Angiozarrera iristeko. 15:00ak aldera, txirrindulariek izango duten bazkarian, datorren urteko irteera zehazteko parada izango da.

## ESKOLA KIROLA

### Karteldegia

#### ATLETISMOA

##### MUTILAK:

**10:00:** Aranzadi 8, Aranzadi 9, M. Lagundia A, San Martin, Aranzadi 10.

**11:00:** Aranzadi 12, Aranzadi 13, M. Lagundia B, Elgeta, Aranzadi 11.

##### NESKAK:

**12:00:** Antzuola, Aranzadi 14, Aranzadi 15, M. Lagundia

#### FUTBOLA

##### BENJAMIN MAILA:

**09:30:** M. Lagundia D-Aranzadi 2

**09:30:** Antzuola B-M. Lagundia E

**10:30:** Antzuola A-Aranzadi 4

**10:30:** San Martin A-Aranzadi 3

**11:15:** San Martin B-Aranzadi 1

**11:15:** Aranzadi 6-Aranzadi 5

Guztiak, zapatuan Ipintzan

##### ALEBIN MAILA:

*Gipuzkoako Txapelketa:*

**12:15:** Elgeta-Tiburoiak (neskak)

**12:15:** Aranzadi 11-M. Iturburu A (mutilak)  
Zapatua, Ipintzan

##### INFANTIL MAILA:

**09:00:** San Fko. Xabier A-M. Lagundia  
Zapatuan, Musakolan (Arrasate)

**10:15:** Instituto-Aranzadi  
Zapatuan, Musakolan (Arrasate)

*Gipuzkoako Txapelketa:*

**17:30:** C. Zarautz IF-Aranzadi (neskak)

Zapatuan, La Sallen (Zarautz)

##### SASKIBALOIA

INFANTIL MAILA (Gipuzkoako Finalaurre)

**11:00:** STL Lizaso-Aranzadi

**11:00:** Aranzadi-Torrebaso  
Zapatuan, Balda kiroldegian (Donostia)



**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Pisua salgai Aranerrekan. Deitu 943 76 28 07 telefonora.

Pisua salgai Elorregin. 943 76 07 47.

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Pisua salgai Martokan. 943 76 37 21.

Pisua salgai Zumarragan. 943 76 23 84.

Soraluzen. Berritua eta amueblatuta. Deitu 943 75 23 98 telefonora.

Pisua salgai Bolun. 943 76 24 85.

Etxe berritua Urteagan, 130 m<sup>2</sup>. 943 76 08 79 (19:00etatik aurrera).

Pisua salgai Masterrekan. 943 76 47 13.

Antzuolan, beheko auzoan. 943 76 60 20.

**EROSI**

Bergaran etxea erosiko nuke. 617 072 595.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaearak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaearak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

**4. LANA**

**ESKAITZAK**

Etzeko lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Astebukaeretan tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak goizez haurrak zaindu edo dendan lan. 943 76 53 71 (Maite).

Emakumeak etxeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Emakume esperientziadunak dendan lan egingo luke. 943 76 07 69.

Udan umeak zaindu, etxeak garbitu edo tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 39 68 (Aitziber).

**ESKAERAK**

Emakume euskalduna behar da haurrak zaindu

Toki-Eder inguruan pisua erosiko genuke. 943 76 04 88 (gauetz).

**ERRENTAN EMATEKO**

Apartamendua Zarautzen (abuztuan ez). 943 76 42 05.

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Garajea salgai Artzamen din. 943 76 06 25.

lbargarai. 943 15 15 81.

Aranerreka. 943 76 28 07.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Garajea salgai Kruz Gailastegin. 943 76 27 61.

Garajea salgai B. Laskurainen. 943 76 18 85.

Garajea salgai Zubiaurren. 943 76 08 89.

lbargarai. 943 76 72 17.

lbargarai. 943 76 23 53.

Garajea salgai Zubiaurren. 943 76 23 53.

lbargarai. 943 76 44 25.

**ERRENTAN EMATEKO**

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 32 58.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Garajea alokairuan hartuko nuke. 943 76 08 53.

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

**3. LOKALAK**

**ERRENTAN EMATEKO**

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71/76 37 80 (gauetz).

Lokala alokairuan San Pedron. Deitu 943 76 10 39 telefonora.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Nekazal lursaila (2.000 m<sup>2</sup>koa) alokairuan hartuko nuke. Deitu 943 76 26 79



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre. Tf. 943 76 71 19



GRUPO ZURICH ASEGURUAU



GABILONDO AGENTZIA INMOBILIARIOA

Gurutzne Elkoro Gabilondo Barrenkalea 44, behea Tf./Faxa: 943 76 57 85



**Droga**

dela eta arazoak dituen norbait ezagutzen baduzu dei iezaguzu!

**91 855 03 86**



eta etxeko lanetarako.  
943 76 44 54.

Senar-emazte edade-  
tuak zaintzeko pertsona  
behar da. 629 26 39 45

Umeak zaindu eta etxe-  
ko lanetarako neska behar  
da. 943 76 52 71.

Arratsaldetan umea  
zaintzeko pertsona behar  
da. 610 39 36 89  
(Beatriz, gauzez).

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAINTZAK**

Ingeles filologian lizen-  
tziatuak klaseak ematen  
ditu. 943 76 30 28.

OHO eta BBB klaseak.  
943 76 33 26.

Ingeles klaseak.  
943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak.  
943 76 26 27 (Ainhoa).

OHOko klaseak.  
943 76 37 94.

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Yamaha 250 cc. moto-  
rra, beltza eta kroma-  
tua. 943 76 28 92.

Suzuki GSX 750 moto-  
rra salgai. Prezio ona.  
610 20 82 78.

Citroen BX egoera one-  
an. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI. 6 urte, egoera  
onean. 608 77 17 32.

Ford Orion 1.6 Ghia. Ai-  
re egokitua. Kilometro  
gutxirekin. 943 76 23 12.

Honda CR motorra sal-  
gai. 250 cc. 9 urte.  
943 76 15 34 (Asier).

Fiesta 1300 (SS-W) pre-  
zio ona. 943 76 63 29.

Fiat Tipo 1.4 (NA-Z).  
Prezio ona.  
943 76 51 63 (Nere).

Honda NSR 80 motorra  
salgai. 943 76 31 52.

Aprillia Klimber motorra  
salgai. 943 76 07 28.

Ford Sierra 2.3 diesela.  
617 20 66 29.

Yamaha 600 Diversion  
motorra. 943 76 08 83.

Naus 485 karabana, 5  
plaza. 943 76 44 07.

GAC motorra (50 cc.).  
943 76 49 30 (Igor).

Trialeko Beta 250 cc.  
motorra salgai. 225.000

pezeta. 943 76 19 88.

Suzuki GSX 750 F moto-  
rra prezio onean salgai.  
610 20 82 78.

Renault 19 TXE 1.7. Ai-  
re egokitua. 250.000  
pezeta. 943 76 19 56.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Opera eta kamara musi-  
ka CD bildumak salgai.  
943 76 58 05 (Juanje).

Berogailua-akumulado-  
rea salgai. 943 76 44 19.

Errepideko bizikleta  
(8-12 urtekoentzat).  
943 76 72 17.

Teknigrafoa salgai.  
943 76 02 12a.

Jaunartzeko bi traje  
(marineroa eta neskati-  
larena). 943 76 14 70.

Jaunartzeko trajea sal-  
gai. 639 93 68 41.

Bi bizikleta egoera one-  
an salgai. 943 76 13 53.

Kalentadore termo be-  
rria. 943 76 30 83 (Juli).

Logela-altzariak. Egoera  
onean. 943 76 06 78  
(21:00etatik aurrera).

Altzari klasikoak salgai.  
943 76 17 08.

Kitarra espainola. Berria.  
943 76 59 94 (gauzez).

Dina pisu elektronikoa  
(5 kg.) eta erlojuko bes-  
te pisu bat (25 kg.) sal-  
gai. 943 76 17 24.

Bigarren eskuko ordena-  
gailuak. 943 76 28 68/  
12 52 (21:00-22:00).

Sukaldeko Fagor kan-  
paia berria prezio one-  
an. 943 76 47 82.

**EROSI**

Kitarra elektrikoa eta an-  
plikadorea. 607 95 77 48.

**GALDU**

Zapata larrosa bat gal-  
du da Santa Marina ingu-  
ruruan. 943 76 48 27.

Korbatako orratza galdu  
da Santa Marina ingu-  
ruruan, G.B. inzialekin.  
Deitu 943 76 23 24  
telefonora.

**AURKITU**

Zilarrezko pultsera aur-  
kitu nuen eguakitzean  
Barrenkalean.  
943 76 15 36.



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**CNC TORNULARIA**  
Urola. 18105/4

**SIOLDATZAILEA**  
Gernika. 18989/2

**ERDUGILE-PLAKA  
JARTZAILEA**  
Ibai ezkeraldea. 18114/4

**BEIRA-KRISTAL  
MUNTATZAILAIA**  
Deba Behea. 18990/3

**INDUSTRIA  
DELINATZAILEA**  
Bilbo. 18397/4

**ASEGURU-AGENTEA**  
Ibai ezkeraldea. 19002/1

**LHII ELEKTRIZITATEA  
(untziratzeko)**  
Bilbo. 18727/2

**MERKATARITZA-  
AGENTEA**  
Ibai ezkeraldea. 19023/1

**ERRENTA  
TEKNIKARIAK, 2**  
Donostia. 18731/3

**BIDAI AGENTZARIARAKO  
ZUZENDARIA**  
Basauri. 19033/2

**MEKANIKA ETA  
ELEKTRIZITATE  
MANTENIMENDUA**  
Durangaldea. 18777/1

**LHII**  
Plentzia. 19136/3

**IGELTSEROA**  
Durangaldea. 18826/5

**BANATZAILAEK**  
Bilbo. 19157/1

**ESKAPARATISTA**  
Gasteiz. 18835/3

**ARRAIN SALTZAILEA**  
Ibai ezkeraldea. 19236/3

**TORNULARIAK, 2**  
Urretxu. 18886/2

**CNC TORNULARIA**  
Bilbo. 19255/2

**INJINERU  
TEKNIKOAK**  
Bilbo. 18954/4

**MANDRINATZAILE-  
FRESATZAILEA**  
Tolosa. 19257/2

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta  
eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.  
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**ARREGUI, E.M.**



**AROSTEGIA**


AROSLAN MEKANIKOAK  
SUKALDEKO ARMAIRUAK  
HORMA ARMAIRUAK  
ATEAK, eta abar  
TARIMAK-PARKETAK  
NEOPRENOZKO JUNTADUN  
EGURREZKO LEIHOAK  
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

**POL-POL**

**Taberna**

☎ 943 76 07 78



**Neska gaztea  
behar da  
gozotegian  
lan egiteko**

943 76 21 87  
(16:00-17:00)

**Tabernaria**

**behar da  
asteburuetarako**

943 76 07 92

**MIZPIRUALDE ZAHARREN EGOITZA**

**Bi erizain (ATS/DUE) kontratatzeko  
oposaketa-lehiaketa**

Instantziak aurkezteko mugaeguna: maiatzaren 21a.

Oinarriak, egoitzako bulegoan:  
Madalena plaza 1 BERGARA.  
Tf. 943 76 13 68



# Amaia Zubiria Zabalotegiko aretoan eta Steve Wynn Jam aretoan iragarri dira gaur gauerako

Zapatuan GBH punk taldea eta domekan Gamma Ray heavy-ak Jam-en

**Amaia Zubiria, Steve Wynn, GBH eta Gamma Ray, era askotako eta goi mailako musika emanaldiak iragarri dira astebukaera honetarako. Kultur Errotako bi emanaldi antolatatu dira aste honetan: atzoko Joseba Tapiarekin erromeria iragarritako zegoen; gaur, ostera, Amaia Zubiria eta May Gorostiaga izango ditugu Zabalotegin. Bestalde, popa, rock and rolla, punka eta heavya gustoko dutenek Jam aretoan dute zita gaur, bihar eta etzi.**

Amaia Zubiria eta May Gorostiagaren emanaldia iragarri dira gaur, eguaitzerako, 22:30etarako, Zabalotegiko aretoan. Amaia Zubiria Txomin Artolarekin Haizea taldean eta Pascal Gaignerekin batera ibilitakoa da, baina oraingoan bere semearekin arituko da Zabalotegin.

Kantutegi tradizionalako abestiak eta orain arte argitaratu dituen diskoetakoak eskainiko ditu. Halere, Amaia Zubiriak inprobistatu egiten du taula gainean eta emanaldi guztiak ez dira berdinak izaten, giroaren arabera egokitzen baitu errepertorioa. Espero dezagun gaurko emanaldian entzulegoaren eta artistaren artean giro polita sortzea eta saio atsegina irtetzea.

Amaia Zubiriaren aurretik, May Gorostiagak "May family" antzeztuko du. Antzerkigile tolosarrak, "bere" familiaren harremanei buruzko ordu erdiko kafe antzerki saioa eskainiko du. May Gorostiaga antzerkigintzan asko ibilitakoa da. Sarrera doan izango da.

## ROCK AMERIKAR BERRIA

Bestalde, 1980ko hamarkadan pop komertzialari aurre egiteko Estatu Batuetan sortu ziren taldeen artean Dream Syndicate izan zen esanguratsu eta interesgarrienetakoa. Green on red, Rain Parade eta Teh Long Ryders, besteak beste, aipatu ditzakegu, ametsaren sindikatuarekin batera, Rock Amerikar Berria etiketapean aurreko hamarkadako rock amerikarra berritu zutenen artean.

Dream Syndicatek sei disko kaleratu zituen eta 89an desagertu zen. Steve

Wynn-ek, taldeko liderrak, bakarkako bideari ekin eta 90ean lehen diskoa plazaratu zuen, "Kerosene man" izenekoa. Dream Syndicateren oinarria kitarrak eta erritmo errepikagarriak baziren ere, Wynn-en lehen diskoan pop melodiek hartu zuten garrantzia. Bigarren diskoa 90eko hamarkadaren hasieran plazaratu zuen Wynn-ek eta hirugarrenako Gutterball izeneko taldea sortu zuen. Ondoren, bakarka kaleratu ditu beste hainbat disko eta gaur Jam aretoan "My Midnight" seigarren eta azkena aurkeztuko du.

Dream Syndicateren garaiko doinu kitarreroak eta pop melodiak nahasten dira disko berri honetan, eta haize instrumentuek eta teklak ere badute bere tokia. Askoren esanetan Wynn-en diskorik berritzaileena izan daiteke "My Midnight" eta egileak berak aitortu duenez, sekula egin duen lanik borobilen da. Edozein modutan ere, bere betiko jarraitzaileek, eta popa eta rock and rolla gustoko dutenek primeran pasatuko dute gaur Jamen. Come, Psychedelic Furs edota Lambchop taldeetan aritutako musikariak izango ditu lagun Steve Wynn-ek. Sarrerak 1.000 pezetan salduko dira; 750 pezetan gazte eta langabetuentzat. Kontzertua gaueko 10etan hasiko da.



Amaia Zubiria.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## IKUSBI

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK


Irala 5 ☎ 943 76 53 09



**GAMMA RAY ETA GBH**

Zapatuan eta domekan, bestalde, bi talde mitiko ikusteko aukera izango dugu Amillagako aretoan. Alde batek, zapatu gauean GBH britainiarrak; Sex Pistols taldearen ondoren, 1980eko hamarkadaren hasierako punk talderik ezagun eta mitikoena. Aurretik, Eskizofrenia rock arrasatearrekin joko dute.

Bestetik, domeka arratsaldean Gamma Ray talde heavy alemaniarra ikusteko aukera izango dugu. Hauekin batera, Steel prophet eta Roland Grapow datoz. GBH-ren kontzertua 22:00etan hasiko da eta sarrerak 1.800 pezetan salduko dira taldearen. Gamma Ray-rena, berriz, dome-



Steve Wynn-ek "My Midnight" bere azken lana aurkeztuko du gaur Jam-en.

ka arratsaldeko Setarako iragarrita dago eta sarrerak, kasu honetan, 2.500 pezetan salduko dira. **B**

**MIKEL ARAIZTEGIREN LANA JAIETAKO ZEKORKETAKO KARTELEAN**

**Mikel Araiztegi** pintore bergararraren margo-lana aukeratu dute Zezenzaleak taldekoek aurtengo Pazkuetako zekorketa iragarriko duen kartelerako. Guztira, 23 lan aukeratu dira Abdon Juaristi zenaren omenez antolatutako lehiaketaren bigarren edizio honetara. Halere, 13 lan lehiaketatik kanpo laga ditu epai mahaiak, hauetan Bergarari buruzko motiborik azaltzen ez zelako eta, oinarrietan jasota dagoen bezala, lehiaketaren gaia Bergara eta zezenak delako. Lan guztiak Kultur Etxean ikus daitezke. Aurtengo jaietako zekorketa, berau iragarriko duen kartela eta jaietako beste zezen festak zapatu honetan aurkeztuko dituzte Gure Ametsa elkartearen Zezenzaleak taldekoek. Halaber, 150.000 pezetako saria emango zaio Mikel Araiztegi.



■ salduenak / apirila

**LIBURUAK****Euskaraz**

1. GAY NAUZU  
Iñigo Lamarca. Alberdania
2. AGIRRE ZAHARRAREN KARTZELALDI...  
Koldo Izagirre. Elkar
3. BERANDU DA GELDITZEKO  
Unai Iturriaga. Susa
4. ZANPA EZAK SUGEA  
Yasar Kemal. Txalaparta
5. IPUIN EUSKALDUNAK  
I. Zaldua eta G. Markuleta. Erein

**Erdaraz**

1. LAS AFUERAS DE DIOS  
Antonio Gala. Planeta
  2. NOSOTRAS, QUE NO SOMOS...  
Lucía Etxebarria. Destino
  3. ALEXANDROS  
Valerio Manfredi. Grijalbo
  4. PLANTAS Y REMEDIOS NATURALES  
Txumari Alfaro. Plaza & Janes
  5. EL CÓDIGO OCULTO DE LA MIRADA  
Pedro Guaníer. Tafor
- Iturria: Bilintx, Peñalba eta Zangitu*

**DISKOAK**

1. DIREKTO  
Soziedad Alkoholika
  2. KLUB SKA  
Skalariak
  3. EN BLANCO Y NEGRO  
Pablo Milanés eta Victor Manuel
  4. TIERRA DE NADIE  
Hevia
  5. SUPERNATURAL  
Desiree
  6. BADIRA HIRU ASTE  
Mikel Urdangarin
  7. DE TRIANA AL CIELO  
Triana pura
- Iturria: Bilintx eta Zaiazko*

**KONDE**

Burdinate 1  
☎ 943 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

**ETXEPARE-BILINTX**

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA



denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Jolastokia. 2. Ugaztun mota. Eskas. 3. Kimikan aditua. 4. Anai-arrebaren seme-alaba. Islandia. Kontsonantea. 5. Sodioa. Juntagailua. Hiru. 6. Tona. Lehenengoa. Urte-saioi. 7. Sastraka. Esfera forma duten objektuak. 8. Urkabe. 9. Nafarroako herria. Gandu. 10. Suari dariona. Janzki mota. Sufrearen sinbolo kimikoa.

**Goitik behera**

1. Jakinduria haundikoak. 2. Hegazti mota. Zuhaitz mota. 3. Gernikako auzoa. Librea. 4. Nafarroako herria. 1996an. 5. Lehortu, idortu. Mila. Kontsonantea. 6. Berrogeita hamar. Bokala. Mea mota. 7. Atmosferako fenomeno. Pluralean, mila kilo. 8. Krisia. 9. Oinarrizko edaria. Laido. 10. Interjekzioa. Toka, dio. Osmioa.

**Soluzioa**

9. Ura, Irain. 10. Aiztoak. Os. 7. Euri. Tonak. 8. Kristaldia. 5. Sikatu. M. J. 6. L. A. Arabela. 3. Luma. Askea. 4. Arabe. Iaz. 1. Jakintsuak. 2. Okila. Arte. Goitik behera. 10. Kea. Jaka. S. 9. Atez. Laino. 7. Sasi. Bolak. 8. Urkamendi. 5. Na. Eta. III. 6. T. A. Urtaro. 3. Kimikaria. 4. Iloba. Is. Z. 1. Jolastokia. 2. Akuri. Urti. Ezker eskuma

**bonofotoa**



Miguel Angel Elkoroberezibar

**Zein esaldi irakur dezakegu dorretxe honen leihoetako batean?**

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Toki-Ona** bodegoian izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Antonio Gonzalez**entzat izan da: Zubi-Berri jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Antoniori! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Farolak** Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-B**

**BONOFOTOA**

**Galde Debalde** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

**TOKI-ONA**  
**Bodegoia-taberna**

Matxiategi 1  
Tf. 943 76 39 53



Elorriotarra jaiotzez, duela 22 urte Bergarara etorri zen. Aurten 20 urte beteko dira denda zabaldu zuenetik; motorrekin hasi eta gaur egun nekazal eta lorategi tresnak saltzen ditu gehienbat. Valentin anaia eta Resu ari dira berarekin lanean.

## Enrike Brunet

**Lanerako beharrezko kalitatea?**

Zerbitzuan konstantea izatea.

**Bezeroak beti du arrazoia?**

Bezeroari arrazoia ematen diogu beti.

**Lan gehien noiz?**

Orain, udaberrian, eta udan.

**Gehien saltzen den tresna?**

Motozerrak.

**Gustoko marka bat?**

Husqvarna, suediarra.

**Makina feriarik onena?**

Elgoibarkoa, gehien han saltzen dugu eta.

**Lorategirik baduzu etxean?**

Bai.

**Eta nork pasatzen du belarra**

mozteko makina?

Neuk, 15 egunean behin-edo...

**Zein ordutan jaikitzen zara?**

7:30etan.

**Eta oheratu?**

Ordubata aldean.

**Umore txarrekoa ala onekoa zara?**

Normalean onekoa.

**Asteko egun bat?**

Domeka.

**Denbora librean, zer?**

Lorategia zaintzea eta motorra.

**Zein motor daukazu?**

Suzuki 500 bat.

**Zure lehenengo motorra?**

Mendiko Torrot bat, 49 cc.koa.

**Motorrak eta bizikletak udarako dira?**

Gaur egun ez.

**Piloto bat?**

Criville.

**Besteengan gehien  
apreziatzen duzuna?**

Egiazaletasuna.

**Zodiakoko zein zeinutakoa zara?**

Geminis. Bi aurpegikoak ei gara.

**Horoskopoa irakurtzen duzu?**

Bai.

**Egunkarian irakurtzen duzun  
lehen gauza?**

Titularrak.

**Telebista ala irratia?**

Etxean telebista, autoan irratia.

**Gustoko programa bat?**

Médico de familia.

**Zelako musika atsegin zaizu?**

Rantxerak.

**Puntuala zara?**

Bai.

**Animalia bat?**

Txakurra. Serla izeneko bat daukat.

**Kinielan edo loterian jokutzen duzu?**

Loterian.

**200 milioi tokatuz gero, zer?**

Negozioa handitu eta 15 eguneko oporrak hartu.

**Bidaia bat nora egingo zenuke?**

Karibera, neguan. **B**



**EDEL**  
TAPIZDENDA


Etzerako artikuluetan  
aukerarik haundiena  
eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltzak,  
edredoia, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar  
baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik  
egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

**MIZPILDI**



**OKINDEGIA**

Matxiategi 1  
943 76 72 73

Mizpildi 8  
943 76 12 32

Bainujantzietan  
aukerarik zabalena



**Nerea**

Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52

**Bolu**  
liburutegia

Enmarkazioak

Ispiluak neurrira

Zurezko artikulua

Bergarako oleo eta

lumatxoak

Erakusketa

Boni Laskurain 4, behea

Denda

Koldo Elizalde 1, behea

Tf. 943 76 70 60





## Labegaraietako eskolan, 1973

Garai batean herriko auzo gehienetan eskolak zeudēn eta ikasle gaztetxoek beraien etxetik gertu ikasteko aukera izaten zuten. Askotan adin ezberdineko ikasleak gela berean izaten ziren eta irakasleek nahiko lan izango zuten batzuen zirrikak eta beste batzuen negarrak dominatzeko orduan. Goiko argazkia Labegaraietako elizaren ondoan aterata dago. Iripartsu ageri zaizkigun ikasleek 31-32 urte egingo dituzte aurten eta Don Jose maisuaren agindutara OHOk lehen maila Labegaraietan egin zuten. Ikasturtea amaitutakoan horietako asko Torrekua inguruan zegoen Alondigara joan ziren ikastera.

Urte dezente igaro dira argazkia atera zenetik eta bihar, hilak 8, argazkian agertzen den

Andoni Azula toki berean kamara aurrean izango da, eguerdiko 12:30etan Nerea Mendi-zabalekin ezkonduko baita Labegaraietan bertan. Zorionak bikote!!

Horra hor erretratuan agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Santiago Castillejo, Jose Antonio Menor, Andoni Rodriguez, Jose Ramon Jimenez, Carlos Sarobe, Iñaki Arietaleanizbeaskoa, Iosu Luarizaristi, Enrique Marquez, Ignacio Gallego eta Jose Ramon Etxeberria.

**Jarrita:** German Zenitagoia, Txomin Arietaleanizbeaskoa, Santi Etxeberriarteun, Iñaki Etxeberria, Bigen Maure, Genaro Menor, Martin Ramirez, Iñaki Saez de Maturana, Andoni Azula, Aitor Aranzabal eta Joseba Azkargorta.



☎ 943 76 20 61



### zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



### MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



# Ukipen LENTEAK



Bergarako **P. Manso** optikan zure begiez arduratzen gara. Gure ardurarik handiena da zure ukipen lenteak begietara ondo moldatzea.

Gogorak, erdi-gogorak, bigunak, erabili eta botatzekoak, egunekoak, koloretakoak...

Behar duzuna daukagu.

Izan konfidantza profesional  
optometristengan,  
baliapide eta garantia guztiekin

Zure begiek

Behar duten arreta guztia



Zure ukipen lenteendako mantenimendua eta osagarriak  
Soluzio garbitzaileak, lubrikanteak, egokitzzaileak...  
Guzti-guztia zure ukipen lenteendako

## BAUSCH & LOMB

**Eskaintza:**  
**16.500 pta**

- 6 hilabeterako erabili eta botatzeko ukipen-lenteak
- 3 pote Renu Soluzio Bakar
- Eta oparia: toaila bat + egunero erabiltzeko *One Day* lenteen packa. Proba itzazu!



**P. MANSO**  
**Optika**

Irizar 2 BERGARA  
Telefona: 943 76 27 86



# ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



## BI SOLAIRUTAKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxe: 943 79 41 82  
**ARRASATE**

# GRUPO **RK^UZ** **FAGOR**

### ALTZARIAK



Araba etorbidea 20 • Tf. / Faxe: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**

### SUKALDE INTEGRALA



Mitarte 3 • Tf. / Faxe: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**